



Haria eta jostorratza lanabes → 4-5

Ospakizunak → 26
Leitzaldeko Eskolen Topaketa
Leitzan maiatzaren 10ean

IGANTZI → 15
Udaberri On jaialdiarekin
kontzertuak larunbatean

MALERREKA → 16/24
Kultur Egunak Sunbilla eta
Donamarian

GOIZUETA → 28
Txino auzoko bestak
izanen dituzte asteburuan

ELIZONDO → 30
'Nekazaritza Merkatu
Gardena' maiatzaren 2an

Matxus PERUGORRIA | Ikerbasque Fundazioan lanean ari den Berako ikertzailea

«Obesitatearekin eta arazo metabolikoekin lotutako gibealeko gaitzek gora egin dute»



Gibealeko gaixotasun kronikoak aztertzen ditu Matxus Perugorria beratarrak. Hiru urte eman ditu Ingalaterran Fibrosi Hepatikoan sakontzen, baina berriz ere Euskal Herrira itzuli da. Ikerbasque Fundazioak nazioartean dauden ikertzaile gazteak erakartzeko deialdia egin eta ehunka eskaeren artean, Matxus izan da beka lortu duenetako bat. Gaur egun, Donostiako Biodonostia Ikerketa Zentroan egiten du lan.

ELKARRIZKETA → 3



SENPERE → 33

31 Mintza lelopean maiatzaren 11n ospatuko da Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko besta. Senpereko laku inguruan ekitaldi andana prestatu dituzte.

LANA → 18

Maiatzaren Lehena
Langileen Nazioarteko Eguna dela eta, mobilizazioak egingen dira eskualdean barna.

ZOZKETAK → 44



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu
948 635 458 telefonora

Koskontako bidea, 11 behea - LESAKA Tel. 948 637 135
ePosta. info@acornlanguages.com



www.acornlanguages.com

Summer Camp 2014



Uztaileko ikastaro trinkoak Hango irakasle batekin

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala
9:00	English class	English class	English class	English class	English class
11:30	Break (ekarri hamajetakoo)				
13:00	Aurkezpen-jokuak	Antzezpren-esprezio-jolasak	Jolasak	Musika	
	eskulanak	igerilekua	eskulanak	Jolasak	
	Land art	Hitz eta 'puihen' tailerra	argazkiekin	Ikaspioen eguraldiak laguntzen bada!	



Ikastaroak noiz: Ekainaren 30etik uztailearen 31ra. **Ikastaroen iraupena:** aukeran dago 2 asterako edo hilabete baterako izena ematea. **Zenbat orduz:** Egunean bi orduz ingeles-eskolak metodo komunikatiboa erabiliz eta 2 orduko jarduera osagarria ingelesez. **Ordutegia:** 09.00etatik 13.00etara. **Adina:** 4-12 urtekoak. Talde homogeneoak adin eta mailaren arabera. Haur-kopuru mugatua. Izena emateko epea zabalik dago.

ttipi-ttapan
UDAN ere
ESKAINITZA
BEREZIAK

FLYER A5
2.500
143€

FLYER A5
5.000
165€

Koloretan | Diseinua barne
Inprenta barne | Garraioa barne
BEZa barne | Epea: 10 lan egun



Biologia eta Biokimika ikasketak egin ondotik, gibelesko gaitz kronikoen inguruan doktoretza egin zuen Matxus Perugorriak. Gaiarekiko interesak erakarrita, Ingalaterrara joan zen eta

hiru urtez han ibili da Fibrosi Hepatikoan sakontzen. Orain, ordean, Euskal Herrira itzulia da Ikerbasque Fundazioak nazioartean dauden ikertzaile gazteak erakartzeko egin duen

deialdiari esker. Eskaera handia den arren, Matxusek beka horietako bat lortu du eta gaur egun, Biodonostia Zentroan egiten du lan gibelesko gaixotasun kronikoak aztertzen.

Matxus PERUGORRIA | Berako ikertzailea

«Gibelean sortzen diren tumoreen %80ak gibel zirrotikoan du jatorria»

G. PIKABEA | BERA

Zein izan da orain arte egin duzun ibilbidea?

Biologia eta Biokimika ikasketak Iruñean egin ondotik, CIMAKo Hepatologia Departamentuan egin nuen doktoretza, Carmen Berasain zientzialari beratarraren taldean. Doktoretzan gaixotasun hepatiko kronikoa lan egin nuen, batez ere, gibelesko tumore primarioa (hepatokartzinoma) nola sortzen den ikertzen. Gibelean sortzen diren tumoreen %80ak gibel zirrotikoan du jatorria, beraz, zirrosian gertatzen diren prozesuak ikertzea hagitz garrantzitsua zela ikusirik, doktoretza bukatu eta fibrosi prozesuan ikertzen jarraitzeko atzerira joatea erabaki nuen.

Ingalaterran egon zara, baina zertan zehazki?

Hiru urte pasatxo eman ditut Ingalaterran, Newcastle-en, Fibrosi Hepatikoan sakontzen. Mundu mailan fibrosian erreferente den ikertzaile batekin lanean aritu naiz. Fibrosi hepatikoa gibelean gertatzen den zikatrizazio prozesu bat da. Hau da, gibelari kalte egiten dion faktore bat dagoeanean, inflamazio prozesu bat gertatzen da lehenik, eta erreparazio edo zikatrizazio (fibrosi) prozesu bat ondotik. Prozesu horiek kroniko bihurtzen direnean sortzen dira arazoak eta azkenean zirrosia agertzen da. Gibelean fibrosian espezializa-



UTZITAKO ARGAZKIA

Matxus Perugorria beratarrak Biodonostia Ikerketa Zentroan egiten du lan.

tuak diren zelula batzuk daude, zelula estelar izenekoak. Hauek fibrosian ikusten dugun fibra hori sortzeaz arduratzen dira, kolagenoa batez ere. Newcastle-en prozesu hau ikertzen ibili naiz, zelula hauekin lanean sendabideen bila.

Gaur egun, gibelean gertatzen diren prozesu patologikoak ikertzen dituzu Donostiako Biodonostia Ikerketa Zentroan. Azaldu...

Biodonostian zortzi ikertzaile ardatz nagusi daude eta gaixoaren beharrei zuzendutako ikertzaile egiten dugu. Ikerketa talde horien artean gaixotasun hepatikoan lan egiten dugunak gaude. Biodonostian Donostia Unibertsitate Ospitalarekin harreman

ETORKIZUNA

«Positiboki pentsatu nahi nuke eta datozen urteetan ikerkuntzak aitzinera jarraituko duela sinetsi. Ikerketa garrantzitsua da, edozein arlotan ezagutza berria sortzea beharrezkoa da, hala nola, sendabide berriak lortzeko, biomaterial berriak garatzeko... Azken finean, gizartearen onura eskuratzeko.»

ETXEKOAK GOGOAN

«Familiari eskerrak eman nahi dizkiot, gurasoei batez ere, bide honetan ondoan izan ditudalako eta aunitz baloratzen dudalako egiten duten esfortzua.»

zuzena dugunez, gaixoen laginak lortzeko aukera dugu. Hauen bitartez, gaixoei dituzten alterazioak ikasi eta hauen sendabideak bilatzen saiatzen gara zeluletan lehenengo eta animalietan ondotik. Gure azken helburua oraindik sendabiderik ez duten gaixotasun hauentzako diana terapeutiko berriak aurkitzea da.

Denok badakigu gibelaren garrantzitsua dela. Baina zenbateraino?

Gibela gorputzeko organo hagitz garrantzitsua da, metabolismoaren erregulazioaz eta sustantzia aunitzen detoxifikazioaz arduratzen baita. Kontuan hartu behar da barneratzen dugun gehiengo gibeletik pasa-


zen dela lehenik, eta beraz, zaintzea garrantzitsua da. Halere, ez da behar bezainbetez egiten, gehiago egin genezake. **Nola egiten diogu bategere ere kalte gibelari?** Gaixotasun hepatikoan parte hartzen duten faktore etiologikoen artean alkohola, toxinak, drogak eta obesitatea daude. Faktore hauek guztiak saihestuz modu batean gibelari kalte egitea ekingo genezake. Azkenaldian, obesitatearekin eta arazo metabolikoekin harremana duten gibelesko gaixotasunek (esteatohepatitis ez-alkoholikoa, adibidez) gora egin dute. Beraz, dietak eta gaur egun daramagun bizimoduak ere bere eragina izan dezakete.

Nola doa ikerketa?

Orain, proiektu interesgarri aunitz ditugu esku artean eta hagitz kontent nago. Duela gutti gaixotasun genetikoan den polikistosi hepatikoan garrantzitsua den prozesu bat identifikatu dugu eta etorkizun batean gaixotasun hauentzako sendabide izan daitekeen sendagaia ikertzen ari gara. Hortaz gain, gibelesko fibrogenesi arloan jarraitzen dut lanean, kasu honetan austriar talde batekin kolaboratzen. Bertze proiektu garrantzitsuen artean, gibelesko prozesu tumoralak ikertzen gabiltza, hepatokartzinoma eta kolangiokartzinoma tumoreak direnak.

GIZARTEA → JOSTUNAK

Bizitza osoa jostura artean



Eskualdeko hiru emakume jostunen bizipenak

Eskuak lanabes. Haria eta jostorra-tza lagun. Umetan ikasi zuten josten, euren kabuz, eskura zituzten traputxoekin behin eta berriz pieza berriak sortuz. Neurriak hartu,

ilbaindu, makinaz pasa... milaka jantzi eginak dituzte geroztik. Bizitza osoa daramate josten eta TTIPI-TTAPAK puntadaz puntada euren istorioak bildu nahi izan ditu.

burubelarri, baita josten ikasi nahi dutenei klaseak ematen ere.

Langintza baten lekukoak dira, afizioa ofizio bihurtu izanaren adibide. Josten hasi zirenetik, hamarkadak igaro dira, batzuen kasuan baita mende erdia ere eta gizartea aldatu bezalaxe, jostun lanbidea ere aldatu omen da. Kontsumitzeko modua aldatu dela diote eta horrek eragin zuzena izan omen du «garai batean jantziak urte askoan irauteko egiten ziren, orain

berriz maiz aldatzea gus-tatzen zaigu, kalitatea beharrean kantitatea da bilatzen dena». Etorkizunaren inguruan ikuspegi desberdinak sorrazten dizkie horrek. Maritxuk inguruan geroz eta jostun gutxiago daudela aipatzen du. Maitek ere zail ikusten du geroa, «merkatuko prezioekin kompetitza ia ezinezkoa baita». Blanca da baikorrena, «arropak maizago aldatzeak lana sor dezake, arropa berri horiek moldaketak behar dituztelako».

Eneritz IRAOLA

Asko izan ziren gazte garaian josten ikasi zuten emakumeak. Ez dira ordea aunitz izan jostea ogibide bihurtu eta bizitza osoan horretan jardun dutenak. Soinekoak, galtzak, atorrak, kortinak... denetarik sortu dute euren eskuek. Berriak sortu eta baita zaharrak konpondu ere.

Ez dituzte nazioarte mailan ezagunak diren abizenak. Ezagunak dira ordea eskualdean haien izenak. Maritxu, Blanca eta Maitek egindako jantziak soinean eraman dituztelako Goizueta, Doneztebe eta Elizondoko bizilagun aunitzek, baita inguruko herrietatik edo urrutitik etortzen ziren bezeroek ere.

Maritxuk duela pare bat urte utzi zuen lanbidea «dagoeneko zaharregia» zela iritzita. Eta mimoz gorde ditu josteko makina eta tresna guztiak. Maitek ere utzi du ofizialki langintza, tar-teka enkargutxoren bat edo bertze egiten duen arren. Blanca da hiruetan gazteena eta oraindik lanean segitzen du

Maritxu TOMASENA ERREGERENA | GOIZUETA

«Aitaren galtza zaharrak askatu eta haien moduko patroiak egin eta josiz ikasi nuen lanbidea»

Irratiaren konpainian edo seme alabak inguruan zituela, hariak dantzari jarri ditu duela gutxira arte Maritxuk. Hogeita bat urte zituen josten hasi zenean eta bere kaxa ikasi zuen «**nire aitaren galtza zaharrak askatu eta hantxe hasi nintzen haien moduko patroiak egiten eta josten, baita txalekoak egiten ere**». Jostea gustatzen zitzaion eta pixkanaka bere soinekoak, ondoren ume txikiak... egiten hasi zen, «**gero, aldizkariak erosi eta horiek begirata ateratzen nituen jantziak**». Afizioa, ogibide bihurtu zuen «**sosa batzuk irabazten nituela ikusita, josten segi nuen**» Eskuz edo makinaz gustorago aritzen zen galdetuta, «**makinan, jakina**» aipatu digu. Hala ere, «**makinan egiten den bukaera eskuz politagoa geratzen denez, eskuz ere egin beharra zegoen**». Hasi zeneko josteko makinaren pedala eta mahaia mantentzen ditu «**68 urte betetzera doaz**». Garai batekoari moldaketak egiten joan da eta «**hasieran pedal bidez lan egiten zuen makinari, motorra jarri eta gaur egun arte iraun**» dio.

Kanporako lanean, baina etxean aritu izan da beti. «**Soinekoak eta denetatik josi izan da gure etxean, etortzen zen guztia, baita berokiak eta kapak ere**» azaldu digu. Bezeroez galdetuta, «**batzuk diru gehiagokoak eta beste batzuk gutxiagokoak. Normalean, emakumeak**» izaten omen ziren. «**Herrikoak gehienbat, na-**



MENDE ERDIA JOSTEN

90 urte ditu eta duela bizpahirura arte josten aritu izan da. Mende erdia bete du bere bidelagunak ere, mimoz zaintzen duen josteko makinak.

ARGAZKIA: BENAT MITXELENA

hiz eta batzuk Leitza eta Arano aldetik etorri. Dantza taldeen-tzat, ezkontzetarako... ere josi izan dut. Bolada batean denetatik izan da hemen, asko» eta konponketa eskean beharrean «zaharrenekin baino berriarekin denak gustorago**» ibiltzen omen ziren. Jantzia nolakoa izan, halako denbora eskaini beharra izaten zitzaion eta salneurria ere, «**lanaren arabera**» izaten omen zen. Bi proba egiten zituzten beti eta gaizki ateratzen bazen hirugarrena ere bai, «**lehenengoa, ilbandu ondoren hariarekin puntu handiz jaso ondoren eta bigarrena, makinan pasa eta plantxatu ondoren**». Telak, hariak, jostorraztak... «**merkeen harrapatzen genituen tokietan**» erosten zituztela azaldu digu, «**begien arabera leku batean edo bestean, baina gehienak Donostia aldean**». Josten erakusten ere aritu izan da «**bi alabei eta herriko neska pila bati**». Ez dio hala ere, etorkizun gehiegirik ikusten jostun langintzari, «**zaila da inguru hauetan jostunak topatzea**».**

Blanca BAÑARES CIGANDA | DONEZTEBE

«Gaur egun eskuz egindako lanak oso gutxi baloratzen direla uste dut»

Iragarki batean irakurri zuen bazela josten ikasteko “urrutiko ikastaro” bat. Bertan izena eman eta haiek bidalitako argibideei segika «**mauka gabeko ator urdin bat**» izan omen zen josi zuen lehen jantzia. Gustua hartu zion jostorraz eta hari artean ibiltzeari eta horregatik Donezteben ematen zituzten ikastaro batzuetan izena eman zuen. Josten hobeto ikasi nahi eta Iruñeara joan zen, 6 urtez aritu zen Iruñeako Yolanda Gaviria akademian «**patroiak nola egiten diren ikasten**».

Geroztik irratia piztu eta orduak ematen ditu bezeroek eskatutako lanak osatzen. Zehatz errateko «**soineko erraz bat egiteko gutxi gorabehera 8 ordu inguru behar izaten dira baina maukak sartu behar badira, tela espeziala bada edo korte zailak baditu orduak bikoiztu egin daitezke**». Gazte, heldu, emakume, gizon... denetarik izan da bere tailerrean. Eskuz eta pedalekiko makinarekin osatzen zituen hasieran lanak, eta gerora erosi zituen josteko makina motordunak. Eskuz eta makinaz jostea, biak asko gustatzen zaizkiola erran digu baina gaineratu digu «**gaur egun eskuz egindako lanak oso gutxi baloratzen**» direla.

Lehen Doneztebeko mertzerietan erosten zituen beharrezko materialak, baina orain ez omen da horren erraza behar dena topatzea, «**gaur egun gauza batzuk Donezteben erosten jarraitzen dut baina beste batzuk hirietan besterik ez ditut aurkitzen, telak eta tresna bereziak adibidez**».

Maite BERGARA ETXABE | ELIZONDO

«Lanbidearekiko maitasuna sentitzea funtsezkoa da, irabazi handirik ez da lortzen»

Jostea betidanik maite izan du. Panpinei jantziak eginez ikasi zuen josten eta orain, jostun lanak ofizialki utzi dituen arren, umetako afizioari segika, panpinentzat jantziak eginez segitzen du. Jostun lanbideaz galdetuta, segituan ttikitako anekdotak dakartza gogora «**ttiki ttikia nintzenean, paga ematen zidatenean, beluzeko (terziopelo) zinta estu batzuk eta botoi ttiki batzuk erosten nituen eta panpinei soinekoak egiten nizkien. Udaran ere siesta egiteko ohitura zegoen eta ni sekula siestazalea izan ez naizenez, nire lagunak siestara joaten zirenean ni maindireei *vainicak* egiten aritzen nintzen**». Etxean zertxobait trebatu ondotik, Manuela Elizalderen tailerrean aritu zen josten ikasten eta gero Iruñean ere urte betez ikasten aritu zen. Hemezortzi urte zituenean hasi zen bere kabuz josten eta duela hamar urtera arte, horixe izan du lanbide. Urte aunitzez aritu da eta hori lortu ahal izateko, lanbidearekiko «**maitasuna sentitzea**» funtsezkoa iruditzen zaio, «**irabazi handirik ez baita lortzen**». Sakrifizio handia zela gaineratzen du «**jostunak ginen, herrietako jostunak, ez hirietakoak**».

Gaur egungo diseinatzaileekin konparatuta «**artistak**» zirela dio, «**gure bezeroak jende normala ziren, sorbalda bat bestea baino gorago edukitezaketan, tripa... oraingo diseinatzaileek akalak izaten dituzte modelotzat**».



IRAKASLE ERE BAI

17 urterekin hasi zen josten eta 44 urte daramatza horretan. Gainera, irakasle lanetan ere badabil astean bitan josten ikasi nahi dutenei erakusten.

ARGAZKIA: BLANCA BAÑARES

Azken urteetan josteko ohitura berreskuratzen ari dela uste du «**agian bizi ditugun garai zailak direla eta, jendeak jantziak bota beharrean konpondu egin nahi ditu eta hori egin ahal izateko batzuk josten ikasten dute**». Duela urte batzuk herrian bertan josten ikasteko aukera izan zuen, eta horixe da orain berak besteei eskaintzen diena, irakasle ere aritzen baita, «**astean bitan ematen ditut klaseak**». Esperientzia «**oso polita da nik dakidana besteei erakustea. Gainera, oso pozgarria da ikasleen aurpegiak ikustea ohartzen direnean beraien kabuz euren konponketak egiteko gai direla**» azaldu digu.

Lehen gehienbat jantzi berriak josten zirela dio baina «**orain gehiena konponketak dira, ospakizun bereziren bat dutenean etortzen dira jantzi berria egitera**» adierazi digu. Dena den, ez dio etorkizun beltza ikusten lanbideari «**duela hogeitau urte baino maizago aldatzen dugu arropaz, erosi ere gehiago erosten dugu eta erosten diren jantzi horiek, konponketak behar izaten dituzte maiz, hortik dator lana**».



PANPINAK JANZTEN

Panpinentzako jantziak eginez ikasi zuen josten. Urtetan izan da eskulanaren artista eta orain ofizioa utzita, bere panpinei jantziak berritzen ari da.

ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Zenbait jantziri bizi berria, erabilera berria ematea ere izan da bere lanetako bat «**ator batekin, motxila bat egin zitekeen, tela arrunt batekin painuelo bat...**»

Gaur egun, orokorrean pentsaera aldaketa bat egon dela iruditzen zaio eta horrek ez diola mesederik egiten jostunen lanbideari. Baretetik, «**jostun batek egindako lan bat artelan bat, oso gutxiren eskura dagoen erlikia bat**» bihurtu dela uste du. Gainera, merkaturko prezioekin konpetitzea ia ezinezkoa dela iruditzen zaio «**ezin da konpetitu, hogeitau eurotan traje oso bat erosi dezakezu edonon. Gainera gaur egun jendeak asko aldatu nahi du, jantzi asko eduki nahi ditu, kalitatea baxugoa izan arren. Garai batean, jantziek irautea zen helburua**». Konponketekin ere gauza bera gertatzen dela dio «**ezin duzu kobratu berez lanak balio duena. 10 euro kosta zaizkien galtzak ekartzen dizkizutelako konponzetako**».



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Trapu zaharrak

Ez dakit nola deitu: 'trapu zaharrak' edo 'trapuzarrak'. Gauza da gure gizartean badaudela gisa aunitzeko trapuak, jende aunitzendako inportanteak direnak.

Trapu hauek garrantzi handia dute, jendea erakarri eta beraien inguruan biltzeko boterea dutelako, eta batzuei talde baten barnean direla sentiarazten dietelako.

Baina aldi berean, eragin gaixto bat ere badutela uste dut, batzuk berteen kontra jartzeko aitzakia izaten baitira.

Real Madrid-Osasuna partida batean: kasu non erakusten duzun osasunaren trapua (eta gauza bera alderantziz, bistan da).

Ikurrina bat Valladolid erdian ez da seguraski ongi ikusia izanen. Bandera espainiar bat Hernaniko plazan bezalaxe.

Bertze kasu batzuk ez dira hain argiak: gure Herriko Etxeetan gisa bateko trapu bat jartzera derrigortzea, eta aldiz, bertze gisako trapu bat debekatzea... Horrengatik diot trapu zahar horiek, ez ote diren "trapuzarrak"... Beharbada trapuek ez dute kulparik. Igual errudunak trapuak erabiltzen dituztenak dira.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Gure esku dago (?)

Demokraziaren izenean mintzo ziren garai batean buruzagiak. Hitz hori handi gelditu eta orain Konstituzioarenean. Beraienean noski. Horren aitzinean deus ez omen dira giza-kateak, lipdubak, herri borondateak, galdeketak, sinadura bilketak, hauteskundeak, gehiengoak... Konstituzioaren eta legearen izenean piper-potoz jantzi dituzte Herriko Etxeetako balkoiak. Gure esku al dago?

Nabarmentzekoak



Arkaitz VICENTE
Lizun gaztandegikoa

Erregularitasunaren saria irabazi du berriz ere Sunbillako Epetxeneko-bordako gaztandegiak Ordiziako XX. Artzain Egunean, apirilaren 23an. Bederatzigarren aldiz lortu du saria.



Xabier ERKIZIA
CAF-Elhuyar sariduna

Xabier Erkizia lesakarrak zientzia gizartearen sorkuntza-bekari CAF-Elhuyar saria jaso zuen apirilaren 10ean, *Idazkera isilak: entzuteko idatzia eta soinu-zuko irudiak* lanarekin.



Oier ARIZNABARRETA
Irabazi eta errekorra Beran

Durangoko korrikalariak Berako Mendi Maratoi Erdia irabazi ez ezik, Didier Zagok 2011n ezarri zuen errekorra gainditu zuen (1:37:30). Ibardinetik ere lehen postuan pasatu zen.

Azterera begira → 2004-V-06 / TTIPI-TTAPA 373. zk.



Herri kirolaren omenaldia «Kaxot» igantziarrari

Herri kirolaren munduak Igantziko Migel Angel Etxarte *Kaxot* zena omendu zuen duela hamar urte eta Euskal Herriko 50 kirolari bildu ziren Igantzin apirilaren 25ean. Herri kirolaren munduan aski ezaguna zen *Kaxot* eta bere oroimenez 28 arpanlari batera aritu ziren lanean eta hauetaz gain, koxkor biltzaileak, korrikalariak, harrijasotzaileak, lasto altxatzaileak, ingude altxatzaileak, lasto botatzaileak, aizkora altueran eta bertze kirol ugari ikusteko modua izan zen. Hainbertze kirolen artean, *Kaxoti* omenaldia egin zitzaion eta oroigarriak, loreak eta aureskua eskaini zizkieten bere senideei.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2014ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Zaharrak berri

Joseba URKIOLA

Kanpai hotsak indarrean dira. Mugikorra poltsikotik atera eta 10:00 ikus daiteke. Zerua gris eta tenperaturak gehiago du hotzetik berotik baino. Nafarroako hiriburuko karrika zaharretan nabil oinez. Ordu batzuk igaro dira eguna argitu zuenetik, inguru hauek baina lo daude. Badirudi iratzartzea kosta egiten zaiola gunehoni. Takoi hutsak urrutitik entzuten dira. Baita etxeko txikien negar hotsak eta kaleak garbitzeko makinaren zaratak ere. Bizikleta batzuen erradio hots sarkorra ere, goizaren soinu banda da.

Zalantzak argitu eta kuriositatearen gosea ase nahian, Alde Zaharra goitik behera ikuskatzea erabaki dut. Eta aurreko aste batzuetan bezalaxe, usteak ez dira inolaz ere ustel. Esnatzea kosta ez, loaldi zurrunean murgilduak dira txoko asko. Sasoi batean Nafarroako herri txikien bazka gunehoni, eder toki eta aisi erreferentzia zirenak ondo itxiak dauzkate euren ateak. "Cerrado", "Itxita", "Salgai" ate askotan irakur daiteke. Kartel horiek berak dira agian, egun karrika zaharrek bizi duten egoeraren isla. Kolorea joana dute, letrak nekez irakur daitezke eta sasoi batean istoria partikular oparoen edukiagatik, gehiago idazteko tinarik gabe geratuak dira asko.

Tabernak ugari dira bazter guztietan. San Ferminak gai nagusi dauzkaten dendak ere erruz eta gozotegiak ere askotxo. Uztailaren 14tik hurrengo urteko uztailaren 6 arte baina, 356 egun luze daude. Badirudi goi-agintariak jaiari hertsiki loturiko gozolandia bat sustatu nahi izan dutela historia biziko gunehonetan. Egun panorama ikusita baina, gutxi da ospatzeko. Bostekoa zabaldua, begirada tris-tearekin eta kartel irakurgarri bat lagun zenbat jende dagoen ikusi besterik ez dago. Zorrek itotako herriarrak goranzko joeran dira. Gosea aspaldi sendotua da eta hori bideratu dezaketenak arrantza egiteko gailuak eman beharrean, kresal ustel kiratsa bakarrik ari dira zabaltzen.

Kuriosoa ere bada Alde Zaharrean hainbeste gozotegi egotea. Historikoki Iruñea beti izan da Elizari eta bere ohiturei loturiko hiria eta ekuazioa ere nahikoa argia da; eliza non gozoa han. Baina tarta zatiak hain garesti daudela jakinda eta merengeak hain erasokorrak badira, nola liteke pastel gunehoni denek bizirik irautea? Gain sari berezi bat ordaindu beharra dutenaren ustea daukat. Bestela zerbaitek huts egiten du.

Kale zahar eta nekez berritzen diren hauetan osteratxoa eginda, ondorio bat ateratzea zaila da. Baina azke urteetan harturiko erabaki batzuek, inguruari adarkada ugari sartu dizkietela ezin ukatu. San Ferminetan badirudi dena dela eder, zoragarri, gozagarri eta baleko. Urtea baina luzea da eta ustezko modernizazioek bizi propio eta berezia zeukaten xoko askoren heriotza sortu duela ukatzea ere zaila. Unibertsitateak nekez prestatu ditu gaixotasun hori sendatzeko mediku eta erizainak. Kutxa erraldoi batzuk dira, orain hiriaren urguilu ase ezinaren erakusgune. Kanpaiak entzungai dira berriz. Zerua ez dirudi argi gehiago eskainiko duenik gaur. Umeen garrasi hotsak eta jendearen joan etorria entzungai da. Egun bat gehiago jai eta festaren erdigune den gozolandian.

Aitzinera edo gibelera begira

Pello APEZETXEA

Gibela joana da. Eta aitzina heldu dena. Honderreko hau da, noski, gehien begiratzen duguna. Orain bizi baikara, eta orain pentsatzen duguna, orain ikusten duguna, orain egiten duguna da gehien balio diguna, gehien laguntzen diguna. Lehengoak ere balio du, noski, gaurkorako, gure gaurkoa, neurri batean, lehengotik hartu baitugu. Duela 300 urteko etxea baliagarri zaigu, paretak, teilatua, eta bertze hainbat gauza. Baina horrek ez du erran nahi etxeko xehetasun guztiak lehen bezala mantentzen ditugula. Etxearen berotzea edota uraren erabiltzea bertze modura egiteko aukera berriak badira gaur egun, lehen ez zirenak, erosoagoak, errazagoak, egokiagoak, gogokoagoak. Eta horren arabera, etxebizitzaren zenbait alderdi aldatu ditugu eta aldatzen goaz. Lehengokoez gain, lehen ez bezalako materialeak eskura ditugu, eta tresna tekniko berriak ere baliatzen ahal gara. Harrigarri gertatuko litzaike lehengo materialeak eta lehengo tresnak soilik erabiltzea gaurko eraikuntzan.

Adibide horretan aisa samar ikusten ahal duguna, ez da hain aisa ikusten bertze hainbat gaitan. Lehengoari lotuak ibiltzen gara, lehengo egia eta egia bakarra bailitzan. Ohartzen baldin bagara, duela 500 edo 600 urteko ohiturei eusten diegu behin baino gehiagotan, erdiaroko filosofia, teologia eta politika ikuspegiak defendatzen, mende haietako jauntxo feudalen antzeko jokaera onartzen. Eta hori gizarte zibilean nahiz erlijiosoa. Egun hauetan irakurri dugu Bertone kardinalak 700 metro karratuko etxebizitza hartu duela Erroman, aunitz tokitan jendeak 100 metrokoari ezin eutsi dionean.

Erdiaroan gaztelu eta jauregi ederretan bizi zirenak batzuk, jende pilaka estalpe arrunt bat eskuratzeko gauza ez zenean. Gaur egun ere guk uste baino ehunka metroko eraikuntza gehiago ikusten ahal dira. Nola ez bada, ehunka milaka euro sakeleratzen dutenean, nahiz eta gehienak 1000 baino guttiagorekin konformatu behar. Aitzinera begira ari gara plantatzen bizimodua? Edo lehengoak dugu gaur egungorako erredua?

«Erdiaroan gaztelu eta jauregi ederretan bizi zirenak batzuk, jende pilaka estalpe arrunt bat eskuratzeko gauza ez zenean. Gaur egun ere guk uste baino ehunka metroko eraikuntza gehiago ikusten ahal dira. Nola ez bada, ehunka milaka euro sakeleratzen dutenean, nahiz eta gehienak milaka baino guttiagorekin konformatu behar»

Irakurleak mintzo

Antonio Lopez,
apez jaunariXanti BEGIRISTAIN MADOTZ
(Auritz)

Agur eta erdi, Antonio. Apirilko Maillopo aldizkarian jakin dut pika bat zure berri. Baina, jarraitu baino lehen aurkeztuko dizut nire burua, laburki bada ere: Etxarri Larraungoa nauzu, irakasle erretiratua eta ia betidanik kezkatu izan nau nafarren hizkuntzarik zaharrena-ren egoerak.

Mailopen irakurri dudan ez, oso bizimodu lanpetua daramazu. Eta Zumarragakoa baldin bazara ere, ez omen zizuten euskararik irakatsi, zerorrek kontatutakoaren arabera. Ez zara lehenengo kasua eta denok dakigu egon daitezkeela hamaika arrazoi gertaera hori azaldu eta justifikatzeko. Urrutirago joan gabe, ni nauzu kasu horietako bat, eta, gainera, zuk oso ongi ezagutzen dituzun bi

pertsonari esker –Jesus Jaimerena eta Juan Migel Etxarri, alegia– hasi nintzen euskara ikasten; gerora, bizitza osoan jarraitu dut jarrera bertsuan, ongi samar jakin arte. Badakizu zer dioen esaera ezagun batek: nahi izatea da ahal izatea. Denok dakigu hau ez dela erabat egia, baina zati handi bat, bai, egia da.

Niri euskaraz egiten jakitea gustatuko litzaidake, konturatzen bainaz eskualde honetako herri askotan beharrezkoa dela, diozu Maillopeko pasarteetako batean. Guztiz bat heldu naiz iritzi horrekin, alegia, euskara beharrezkoa dela, horrexegatik animatzen zaitut berri ere euskara ikasten jarraitzera. Gogora ezazu goragoko esaldiaren mezua, eta, kontuan hartu, denbora norberak aukeratzen duela nola erabili; bizi arte du gu tenore aparta.

Zure karguengatik, eta egunero-egunero haur, gazte, heldu eta zaharrek harremanak



Bota bertsoa

Bortzirieta Eskola • Doinua: ETAREN su-etenetik

Bardoak 2014 finaleko ongietorria

Nahiz finaletikan kanpo den herriko gepardoa gure eskuetan dago gaurko lehen petardoa has gaitezen intentzioz nabari dadin garboa oinarria da ahotsa irudimena margoa nola denborakin ontzen den Nafarroko ardoa zintzurretik bihotzera ailetuko da dardoa etorkizun loratura Ongi etorri bardoak!

Hau ez da Iruñerria ez da ez Leitza ez Baztan izokia Bidasoan Mari Errauskin zapatan Las Ventasen torero bat plater bat Adriären kartan pilotaria Labriten ronik onena kubatan Barcina inauguratzen Xorroxingo bat Behi Kakan futbolista mundialean herri bat munduko mapan hola sentitu behar du Bertsolariak Lesakan.

izan behar dituzulako, nik uste dut euskara ez duzula bakarrik beharrezkoa, baizik eta ezinbestekoa, bestela, nahita nahi ez eta ezinbestean eginen duzu zure eskualdeko euskaldunekin (Lekunberri, Larraun, Betelu, Araitz), Juan Carlos Moreno Cabrera Espainiako

hizkuntzalari ospetsu, jakintsu eta errespetatuak dioena, hau da, hizkuntza inperialismoa eta hizkuntza kolonialismoa.

Aupa, eutsi goiari eta Jaungoikoak lagun diezazula euskara ikasten!!! Badakizu Harentzat ez omen dagoela gauza ezinezkorik, beraz, esan

liteke, borondate ona baldin baduzu, segurua dela zuk euskara bika-in ikasi, eta gero sermoiak hizkuntza horretan bapatean eman ahalizatea, zuk gustukoa duzun bezala. Izan ezazu uste osoa Jainkoarengan eta lortuko duzu!!! Ala ez?

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttppi.ttapa
www.facebook.com/ttppi.net

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

PUNTA-PUNTA KO TEKNOLOGIA
iritsi da **Bortziriak**-era

BORTZIRIAK^{SL}

iPad mini

Samsung Unvelled
GALAXY Tab 3

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

Prentsatik bildutakoak



«Nik txikitik ikusten nuen liburutegia toki kulturala zela, jardue- ra anitz egiten zirela eta beti ikasten zela zerbait. Modu dibertigarrian gainera, jolasaren bitartez, ez eskolan bezala». «Katalunia erreferente handia da. (...) anitz inbertitu du kulturari eta hezkuntzari eta hori nabaritzen da. Ez du zerikusirik han eta hemen gertatzen denarekin»

Idoia SOBRINO
Batzango liburuzaina
NAF.HITZA 2014.04.18



«Normal-normal hartzen dut; gure taldean bederatzik hautetsitatik bost emakumezkoak gara, eta egia da orain emakumezko batek lehen aldiz ardurari hori hartzea zerbait berezia izan daitekeela orain arte alkateak gizonzkoak izanda, lehena naizelako. Baina herri gintzan urte luzez emakumeon egitekoa garrantzitsua izan da eta hau ere horren isla dela uste dut»

Arantxa IPARRAGIRRE
Leitzako alkatea
NAF. HITZA 2014.04.18

11 galdera labur

Nor dugu Eli Garmendia?

Zugarramurdin bizi dena, bi seme-alaben ama eta Graxiana Aterpeko arduradunetako bat.

Zein zaletasun dituzu?

Dekorazioa eta brikolajea.

Zerk egiten du berezi Zugarramurdi?

Jende aunitzek ezagutzen duen sorginen historiak, baita inguru paregabeak eta bertako jendeak ere.

Sorginen Museoa ala lezeak dituzu nahiago?

Museoa polita eta interesgarria izan arren, lezeak nahiago, gaztetako jolastoki eta abar izan dugulako zugarramurdiar aunitzek.

Nor zen Graxiana sorgina?

Zugarramurdiko sorgin erregina.

Bisitaria euskalduna ala kanpokoak?

Euskaldunak, dudarik gabe, bertze edukazio eta izaera bat daukagu.

Krisia nabaritu duzue Graxianan?

Ez dugu kexatzeko arrazoirik, egia baita krisi bete-betean jarri

genuela gure proiektua martxan, eta ez dakigu krisia baino lehen zegoen oparotasunean lan egitea zer zen.

Zer litzateke Zugarramurdi sorginik gabe?

Segur aski ez zen hain ezaguna izanen eta ez zuen turistak ematen diguten ekarpenik izanen. Kanpora joan beharko genuke lanera. **Zugarramurdiko txokorik politena?**

Eguraldi garbia dagoenean, Atxuria kaxkotik dauden bista zoragarriak.

Zer du faltan eta zer soberan Zugarramurdik?

Faltan... hondartza edo igerilekua, jaje! Eta soberan Herriko Etxean jarrirazi diguten bandera.

Amets bat?

Urtean 360 egunez eguzkia egiten duten toki batean.



Eli GARMENDIA → Zugarramurdiko Graxiana Aterpekoa

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalainjartetxea.com

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegará 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa
• Kirol Fisioterapia
• Osteopatia
• Masaiak
• Trafiko istripuetan aholkularitza
• Istripu eta osasun aseguruak
• METODO BERRIA
Umeentzako arnas fisioterapia
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

KULTURA

BERTSOLARITZA → APIRILAREN 13AN LESAKAN

Baztango Lepatanatuek 2 nagusi Bardoen finalean

Bertso giro bikaina izan zen eta 360 lagunek bete zuten frontoia

TTIPI-TTAPA

Giro ederrean buka da Lesakan Bardoak Nafarroako taldekako ekimenaren bigarren edizioa. 360 lagunek bete dute herriko frontoia eta taula gainean hiru taldeek eskaini duten bertso saioarekin disfrutatu dute.

Hiru ziren talde finalistak eta bederatzita bertsolari igo dira oholtzara: Lepatanatuek 2 taldean Xabier Maia, Oier Amiano eta Kotte Plaza; Bertze maldikoak taldean, Aimar Karrika, Ainhoa Aranburu eta Oskar Sanz de Acedo eta Harrapazank taldean, Migel Mari Elozegi Luze, Iñigo Ibarra eta

Joanes Illarregi. Era berean, hiru aurkezle izan zituen saioak, talde bakoitzetik bana: Fernando Anbustegi, Miren Biddarte eta Jon Oronoz.

Saio bizia eta umoretsua izan zen eta entzuleek ere parte-hartzeko aukera izan zuten ariketa batean, azken oinak asmatuz.

Saioko irabazlea Bardoek ekimenaren parte hartu duten bertze 13 taldeetako ordezkariak eta entzuleek erabaki zuten, haien bozkaren bitartez. Horren arabera, Baztango Lepatanatuek 2, txipiroien itzule-
ra taldea izan da Bardoak ekimenaren bigarren edizioko irabazlea. Alaitz Rekondo Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakariak eman die saria taldeetako kide guztiei, Bardoek zapi bana eta saski eder bat. Sari bera jaso dute finalean aritu diren beste bi taldeek. Sa-



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

Taldeek irudimena erakutsi zuten hasierako agurrean. Argazkietan, Lepatanatuek eta Harrapazank taldekoak.

ria Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakariak eta Maider Arrieta Lesakako Kultur zinegotziak eman diete.

Ez dira finalistak saria jaso duten bakarrak. Bertze hainbat sari banatu dituzte Bardoek finalean: hasierako agu-

rrik onenari saria Lesakako Zortziko Haundiena taldeak eraman du, Bardoek talde errebelazioarena Barañaingo Miluzeko barañetak eta Barardoak taldeek; Bardoek izpirituarena Larrungo Paalletan Moredadesek, otordu onenarena Baztan Malerre-

kako Etxeko Kontuk taldeak eta saio onenaren antolaketarena Etxarri Aranazko Bilixkorrikok.

Bertso festak segida izan zuen, bertso-poteoarekin eta Lindurren-borda sagardotegian egindako afariarekin. 125 lagun bildu ziren giro ederrean.

KONPONKETAK
ere egiten ditugu

BORTZIRIAK expert

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

ERROTAZAR

harategia

Bertako
produktuak

Eztegara, 3 · BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

KULTURA → MAIATZAREN 7AN EZTEGARA FRONTOIAN

Institutu arteko kontzertuak 370 ikasle bilduko ditu

Toki Ona, Biurdana eta Zizurkoak

TTIPI-TTAPA

Toki Ona, Zizur eta Biurdana institutu etako ikasleek kontzertua eskainiko dute maiatzaren 7an 17:00etan Eztegarra pilotalekuan. Hiru ikastetxe etako 370 ikasle bilduko dira.

Ingeles udalekua

Labiaga ikastolak ingeles udalekua antolatuko du aurten ere. Bi aste teko bi txanda izanen dira: ekainaren 30etik uztailaren 13ra eta uztailaren 14tik 25era, baina hilabete osokoa egiteko aukera ere izanen da, ekainaren 30etik uztailaren 25era. Haur Hezkuntzako 5 urteko neska-mutikoetatik hasi eta DBHko laugarren maila bitarteko ikasleei zuzendua da.

Izen emateko epea zabalik dago maiatzaren 9ra arte, Labiaga ikastolara deituz (948 630172 telefonoa) edo bera@ikastola.net helbide elektronikoan.

Gure esku dago Eguna

Gure Esku dago Eguna antolatu dute maiatzaren 10ean. 16:30ean haur jokoak kiroldegian. 18:00etan poteo herrikoia eta 19:00etan mosaiko erraldoia osatuko da Herriko Etxeko Plazan. Pintxoak eta sargardoa izanen dira, baita kamixetak ere.

Aizkora saioa igandean

Gazte mailako *Euskolabel Saria* Urrezko Aizkolarari banakako txapelketako saioa jokatuiko da maiatzaren 4an, 12:30ean Eztegaran. Oihan Larretxea herritarra, Ruben Saralegi leiztarra, Ander Erasun aurtiztarra eta apirilaren 27an Bilbon jokatuako saioko hiru lehen sailkatuak lehiatuko dira.

Bestetarako bilerak

Maiatzaren 6an koadrilei zuzendutako bilerara egingen da herribazkaria partehartzaileragoa egin asmoz, eta maiatzaren 13an bilera irekia. Biak 19:00etan Beralandetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pilota jaialdi bikaina Enaitzen alde

Bortziriak pilota elkarrekin Enaitzen aldeko pilota jaialdia antolatu zuen apirilaren 11n Eztegaran eta gazte mailetan punta-puntan dabilzan pilotariak lanean ikusteko aukera izan zen. Halako elkartasun erakustaldi batean, guttienekoa emaitzak ziren, baina Enaitzekin argazkia atera eta gero, garaipenaren bila saiatu ziren pilotari guztiak, behar den bezala. Kadetetan, Mikel Eltzaurdia beratarrek eta Bixente Lafitte saratarrek 16 eta 11 irabazi zieten Jonan Fagoaga eta Beñat Ordoki lesakarrei. Gazte mailan, Andoni Lazkanotegi eta Harri Maritoren beratarrek 18 eta 13 irabazi zieten Oian Canabal igantziarrari eta Mattin Garbisu beratarri eta Ander Errandonea beratarrek eta Sergio Oskoz baztandarrek 22 eta 11 irabazi zieten Beñat Mitxelena beratarri eta Jon Olaizola lesakarrari.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zahar Etxean zinemara ateraldia eta Kultur Astea

San Jose zahar etxea indartsu dabil eta apirilaren 22tik 27ra ekintzak betetako Aste Kulturalean ospatu zuen: talogileak, Saroberen eskutik postre tailerra, musikariak, bertsolariak, mus eta oca txapelketa... izan dituzte. Bertze aldetik, apirilaren 9an, Berako zahar etxeko bizilagunek berriz aukera izan zuten zinemara joan eta, nola ez, modan dagoen 8 *apellidos vascos* ikusteko.

**Xirgil**
Jalone Goya
Altzate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462

**Arturo**
Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria
Altzate, 20 BERA T. 948 630 136

**elika**
Dietetika eta elikadura
IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221
Itzea, 6 behe 31780 BERA
t 948 631 283 | 645 708 512
e. elikaibera@hotmail.com

LESAKA

KIROLA → MAIATZAREN 11N

Salvador Yanci zenaren omenez txirrindularitza proba egingen da

103 kilometroko ibilbidea osatuko dute

Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteak zuzendaritza batzordean hiru hamarkadatan eta azken 16 urteak presidente izan zen Salvador Yanci zenaren omenez lehen aldiz antolatutako martxa zikloturista maiatzaren 11an egingen da. Beti Gazte elkarteak ez ezik, Gure Txokoa, Baztandarra, Urtxintxa, Aizan eta Erreka txirrindularitza taldeek parte hartuko dute antolaketan. Ibilbidea 103 kilometrokoa izanen da, Lesakan hasi eta bukatu. Goizeko 9:00etan abiatuta, Lesakatik Berara joan eta berriz ere Lesakan sartuko dira txirrindulariak, Piedadeko gainan barna Igantzira joateko; Sunbilla, Doneztebeko bidegurutzera, Legasako bidegurutzera, NARBARTO, Oronoz-Mugairi, Arraioz, Elizondo, Otxondoko gaina, Dantxarinea, Zugarramurdi, Berruet Ben-

ta, Sara, Lizaietako gaina eta Etxalarren barna igaro ondotik, Plaza Zaharrean helmugaratuko dira partehartzaileak.

Aitzinetik izen eman daiteke maiatzaren 7a bitarte Beti Gazteren webgunean. Federatuek 10 euro ordaindu beharko dute eta federatu ez direnek 15 euro. Beti Gazteko bazkideei dagokienez, federatuek 7 euro eta federatu gabekoei 12 euro ordainduko dute. Bertzela, egun berean eman daiteke izena Herriko Etxeko arkupetan, 7:00etatik 08:30era. Kasu honetan, federatuek 15 euro eta federatu gabekoei 20 euro; Beti Gazteko bazkide federatuek 12 euro eta federatuta ez daudenek 17 euro ordainduko dituzte.

Ezagutu dezagun Lesaka

Neska-mutikoen herria hobeki ezagutzeko helburuarekin aurten ere Ezagutu dezagun Lesaka lehiaketa proposatu du Beti Gazte, Udalaren laguntzarekin. Lehen Hezkuntzako eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Pilotakadaz pilotakada txapelketako finalak

Pilotakadaz pilotakada txapelketako finalak jokatu ziren apirilaren 17an. Eskuz, Beñat eta Joel Oronoz anaiek 22-12 irabazi zieten Jon Olaizola eta Unai Zamoranori. Frontenisean, Javier Maiak eta Aitor Altzugaraiak 22 eta 16 irabazi zieten Unai Gurrutxaga eta Ander Olaizolari.

DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei herriari buruzko 30 galdera egiten zaizkie eta erantzun-orrria maiatzaren 16a baino lehen aurkeztu beharko da Irain Eskola publikoan, Tantarumairu ikastolan edo Beti Gazte elkartearen. Ez da derrigorrezkoa galdera guztiak erantzutea.

Kasleak hiru mailatan banatuko dira. A mailan, 1. eta 2. kurtsoko ikasleak sartu dira; B mailan, 3., 4. eta 5. mailako ikasleak eta C mailan, Lehen Hezkuntzako 6. mailakoak eta DBHko 1. eta 2. kurtsokoak.

Sariei dagokienez, A mailan, lehenbiziko saria 30 eurokoa izanen da, bigarrena 25 eurokoa, hirugarrena 20 eurokoa eta laugarrena 15 eurokoa. B mailan, lehen saria 40 euro, bigarrena 35 euro, hirugarrena 30 euro eta laugarrena 25 euro. C mailan,

lehen saria 50 euro da, bigarrena 40 euro, hirugarrena 35 euro eta laugarrena 30 euro.

Sarietan ez da dirurik emanen, material didaktikoa erosteko txartelak baizik. Maila guzietako hoberenari sari berezia bat ere emanen zaio. Gainera, 12 galdera baino gehiago erantzuten dituzten guztiak ere saritxoak jasoko dituzte.

Maiatzaren 7an odol ematera

Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko autohemoteka maiatzaren 7an 17:15etik 20:30era egonen da Osasun Zentruaren parean. M^a Eugenia Maritxalar herriko odol-

emaileen ordezkariak aipatu digunez 112 odol-emaile badira herrian, baina adinean goiti doazenak gehienak eta hortaz deialdi berezia egiten diete gazteei odola eman dezaten. 18 urte baino gehiago izatea aski da. Normalean urtean bitan ematen da odola. Irailaren 17an izanen da hurrengo autohemoteka herrian.

Kiroldegiaren kudeaketa

Udalak eratutako Oirlartegi sozietate publikoak kudeatuko du kiroldegia maiatzetik aitzinera. 2008ko martxoan ireki zenetik honat, Urdi enpresak kudeatu du kiroldegia.



Ba al zenekien

John Anduezen 'Sanferminetan, Lesakan' liburuen aurkezpena egingen dela maiatzaren 15ean arratsaldeko 7etan Tantarumairu ikastolan

J. RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattogorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

XATU RETXEA
OSTATUA
PINTXOAK
BOKATAK
GOSARIAK
Arratzubi kalea 4, 31770 Lesaka
TEL: 948.637.260 · ORDUTEGIA: 07:30-15:30

SOLASALDIAK → APIRILAREN 5EAN

Turismo bulegoa irekia egon da Aste Santuan

Landa etxeetan zeudenez gain egun pasa ere jende aunitz etorri da herrira

Irune eta Itsaso

Aurtengo Aste Santuan ere turismo bulegoa irekia egon da kultur etxean eta Miren Bizente izan da arduraduna. Eguraldi ederra lagun, jende aunitz ikusi da herrian. Turismo bulegora hurbildu diren gehienak Valentziakoako edo katalanak izan dira. Herriari buruzko informazioa nahi zuten aunitzek eta denbora ona egin duenez baita mendi ibilbideen gainekoa ere. Horrez gain, Usategiak zer diren, Infernuko errota, Bortziriak, Baztan, Bertizko parke naturala, Xaretako kobazuloak (Sara, Zugaramurdi eta Urdazubi)...

Landagain eskolakoak kanpaldian

Aurten, iaz ez bezala, kanpaldiaz gozatze-ko aukera izan dute ikasleek, 4 urtekoetatik hasi eta 6. mailara arte. Oporraldiaz gozatu duten lehenak eskolako zaharrenak izan dira; 5. eta 6. mailakoak aste bete pasa dute Isaban eskiatzen; apirilaren 6tik 11 bitarte. Gardeko kanpinean hartu dute ostatu. Guztira 19 ikasle eta 2 irakasle hartu dute parte, Nafarroako hezkuntza departamentuak antolatzen duen Aste Zurian. Ikasle hauek Lesaka, Bera eta Igantziko adin bereko ikasleekin batera joan dira. Balorazioa hagitz ona egin dute.

Apirilak 9tik 11 bitarte, eskolako 3. eta 4. mailakoen txanda izan da: 16 ikasle eta 2 ira-



kasle Lizarrako kanpinean izan ziren. Hauek Arantzako eta Igantziko ikasleekin batera joan ziren eta hagitz gustura ibili ziren.

Maiatzaren 8-9an eskolako gazteenak Zugaramurdira joanen dira eta 1. eta 2. mailakoak berriz, maiatzaren 27-28an Hondarribira. Ea hauek ere eguraldia lagun izan eta primeran pasatzen duten.



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Ederki pasatu dute egunotan eskolako ikasleek.

Altxatoko batzar orokorra

Altxata kultur elkar-tereko batzar orokorra maiatzaren 3an izanen da Kultur etxean, 18:00-etan. Bertan landuko diren gaiak hauek izanen dira: Azkeneko Batzar Nagusiaren akta onartzea, 2013ko kontuak, 2014ko aurrekontua, mendi itzulia: Nafar Mendi Federazioa eta

federatzea, 2014ko inauteriak, gasna feria, San Juan sua, Usategietako igandea, dantzak, pilota, junta berritzea eta galdera eta erantzunak.

Usoa kooperatibako urteko batzarra

Apirilaren 12an Usoa kooperatibak urteko batzarra egin zuen.

Hainbat gaiei buruz solastu ondotik junta berritzeko bozketa egin zuten baina oraindik osatu gabe dago. Hiru sari zozketatu dira: lehenengo saria bizikleta bat Juan Mari Olagarairi tokatu zitzaion; bigarrena kaxa bat ardo Ramonita Ozkariz eta hirugarrena fregona bat Jaione Eugiri. Ondotik La Basquen afaria egin zuten bazkideek.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

ORBELA
SENDERMOA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

USOA
Nekazari kooperatiba
· Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
· Ongarriak · Burdin tresnak
· Insektizidak · Edariak · Haziak
· Botikak (errezetarekin)
Etxez etxeko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa
Tel. eta Faxe: 948 63 52 14 · ETXALAR

ERANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

BERA
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 · Zalain, 42 A · BERA

ERREKALDE
PLATER KONBINAIAK OSTATUA
PINTXOKAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

ARANTZA

MENDIA → MAIATZAREN 18AN

Mendi itzulia alderantzizko noranzkoan egingen da aurten

Mendi itzuliko kamisetak ostatueta salgai daude

Nerea ALTZURI

Gutti gelditzen da mendi itzulirako. Ekaitza Elkartea burubelari ari da maiatzaren 18ra-ko dena prestatzen. Eguraldiak laguntzen baldin badu, herria begibistan dela, Arantzako zirkua egiteko modua izanen da aurten ere. Duela bi urteko eguraldia ez errepikatzea espero dugu, hain ibilaldi ederra zapuztu baitzuen. Aurten gainera, mendi itzulia desberdina izanen da. Izan ere, alderantzizko noranzkoa hartuko du: plaza, Bulatxiki, Zepuru, Mairubaratza, Illurdi, Mendaur (aukerakoa), Ekaitza, Bazterla, Oilargata, Izu, Unanu, Aranibar eta plaza. Mendaur igotzen dutenek 27,8 kilometroko itzulia egingen

IZEN-EMATEA

Mendi itzulian parte hartzeko aitzinetik izena emateko www.menditzulia.com eta www.mendizmen-di.com web orrietan egin daiteke. Bertzela, egunean berean.

dute eta Mendaur gabe 25,2 kilometro izanen dira. Kontrol eta jateko nahiz edatekoak aitzineko edizioetako leku berberetan izanen dira.

Izen-ematea aitzinetik egin daiteke www.menditzulia.com edo www.mendizmen-di.com edo bertzenaz egunean bertan ere egin daiteke, 06:30etik aitzinera. Mendien federatuek 10 euro eta ez federatuek 12 euro ordaindu beharko dute. Egunean berean parte hartzaileen artean opariak ere zozketatuko dituzte.

Aipatzekoa da, emakume nahiz gizonentzako kamiseta termikoak



ARGAZIAK: ALAITZ RUIZ

Igoeretan zaulia

Mikel Alzuri Apezetxea aranztarra kirolzale eta mendigoizale amorratua da. Lasterka nahiz mendian aski zaulia izan da betidanik. Iaztik, bere lehengusua den Asier Apezetxeak animatuta, kilometro bertikaletako lasterkaldi eta txapelketetan dabil. Asier ere, mendiko bizikletako probak utzita, Mikelekin batera lasterkaldi hauetan ari da. Berriki, apirilaren 12an Huescan (Oturia), Espainiako bertikalen txapelketarako puntuagarria den lasterkaldian 19. postua lortu zuen Mikelek, aitzineko edizioeko txapelkunaren denbora hobetuz. 168 partaide izan zituen probak eta 46 minutuan ibilaldia egin zuen. Iaz ere, Anboto eta Uharte Arakilgo kilometro bertikaletan postu onak eskuratu zituen. Aurtengoari dagokionez, maiatzean izanen diren Endaltsakoa eta Larungoa egiteko asmoa du; eta bertalde, Benasque, Panticosa, Araia-Aratz, eta Uharte Arakilgo lasterkaldiak ere bere agendan apuntatuak ditu. Kirol gogorra bada ere, Mikelek erran digunez, ahalik eta proba gehien egiteko asmoa du. Asteaz, borts egunetan entrenatzen du entrenatzaile batekin eta tira, sakrifikatu xamarra bada ere, zaletasunak oraingoz bizirik dirau. Erranera dio bezala, gustoko lekuan aldaparik ez! Oraingoz maldek Mikel ez dute beldurtzen! Baina herrian ere, gazte batzuk zenbait probetan parte hartzen ari dira: Beran egindako maratoi erdian, Asier Apezetxea, Dani eta Jabier Iparragirre, eta Imanol Lukanbiok lasterkaldi bikainak egin zituzten. Zaletasun guzietan ere, garrantzitsuenak gozatzea! Bejondeizuela!

salgai daudela herriko ostatueta 20 eurotan.

Aspalditik iragarria bagenuen ere, badakizue, mendi itzuliarekin aukera paregabea izanen da mendi eta parajeet gozatzeko!

Herriko langilea

Joan den apirilaren 8az geroztik, Beñat Mitxelena gaztea herriko lanetan ari da. Urtero bezala, Nafarroako Gobernuak langabetuak harjezko dirulaguntza eska-

tu du Udalak eta zonaldeko enplegu bulegoan 20 lagun izen emanak ziren. Apirilaren 7an azterketa egin eta Beñatek eskuratu du lanpostua. Azaro bukaera bitarte herriko lanetan ariko da.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertazak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tlf: 948 625 474

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
iturgintza • gasa
kalefakzioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

GIZARTEA → ORTZEGUN ETA ORTZIRALEAN 700 LAGUN SARTU ZIREN EGUN BAKOITZEAN

3.000 bisitari hartu zituen Irrisarri Land-ek Aste Santuan

Asteburu honetako zubiko lau egunetan 10:00etatik 20:00etara zabalduko ditu ateak



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Irrisarri Land-eko maskota, Baxi ezagutzeko aukera ere izan dute ttikienek.

TTIPI-TTAPA

Aste Santuko bortz egunetan 3.000 bisitari baino gehiago hartu zituen Irrisarri Land abentura parkeak. Jende gehien etorri ziren egunak ortzeguna eta ortzirala izan ziren, 700 lagun baino gehiago egun bakoitzean. Larunbatean eta igandean 600 pertsona sartu ziren eta egunik motelena astelehena izan zen, 500 bisitariarekin. Instalazio berriaren ardura-dunak kontent daude datu hauekin. Helikopteroa ere aunitan hegatu zen egun horietan.

Bertze aldetik, ekaina bitarteko irekiera ordutegia zertxobait aldatu du parkeak. Honela

aurrerantzean, astelehen eta astearteetan itxia egonen da; asteazken, ortzegun eta ortziralean 15:00etatik 20:00etara irekiko ditu ateak eta larunbat eta igandetan, 10:00etatik 20:00etara. Dena den, maiatz hasierako zubiko lau egunetan, ortzegunetik igandera, 10:00etatik 20:00etara. Ordutegi hauetatik kan-

Ba al zenekien

Nafarroako Herri Kirol Jokoen finala herrian egin zela apirilaren 13an eta kimu mailan, herriko Irisarri taldea bi segundo eskasengatik ez zela podiumera igo

po parkea itxia egonen da, baina talde handi edo ekintza bereziatarako ordua eskatzen ahal da. Modu berean, monitorea behar duten ekitaldietarako ere (ti-

rolinak, penduloa edo mendi bizikleta jautsiera-rako pistak erremontearakin) komenigarria da ordua eskatzea, bisita ahalik eta emankorrena izan dadin.

MAIATZAREN 1ETIK 4RA

Udaberriko bestak asteburuan ospatuko dira

TTIPI-TTAPA

Udaberriko Bestak antolatu ditu Euskara Batzordeak maiatzeko lehen asteburuan:

ORTZEGUNA 1

- 10:00etan *Berrizaun: bere historia ezagutzuz* Ibilaldi gidatua.
- Arratsaldez Igantzi kantari. Dantza taldearen saioa. Opil jatea.

ORTZIRALA 2

- 15:00etan Haur eta gurasoen mendi irteera.
- 21:00etan *Buah Txabal!* antzezlaren proiektzioa eskolan.

LARUNBATA 3

UDABERRION EGUNA

- Goizez Iñigo Seguro-la paisajistarekin Iorrezaintzari buruzko ikastaroa.
- Arratsaldez Trikipotea.
- 23:00etatik aitzinera Kontzertuak: AZ/DZ, Gose eta Bad Sound Sistem.

IGANDEA 4

- 17:00etan Haurren antzerki emanaldia Baratzondon.



HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOAK

Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007



- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- KARTOGRAFIA, PLANOAK ...
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA

IGANTZI - LEGASA

T. 606 31 45 26 andreszelaieta@hotmail.com

SUNBILLA

GIZARTEA → APIRILAREN 15EAN

Joku Topaketa arrakastatsuak izan dira aurtengoak ere

Saldias, Labaien, Legasa, Ituren, NARBARTE eta Sunbillako eskoletako ikasle irakasle eta gurasoak bildu zituen

Maider PETRIRENA

Apirilaren 15ean, laugarren urtez, Joku Topaketa ospatu zen herrian. Egun ederra izan zuten Saldias, Labaien, Legasa, Ituren, NARBARTE eta Sunbillako ikasle eta irakasleek. Goizeko 9etan frontoian elkartu ziren. Ondoren taldeetan banatu eta hiru ekin-tza ezberdin burutu zituzten. Herri Kirolak plazan egiteko aukera izan zuten, eguraldi ederrari esker. Ipuin Kontalariaren saioa ingelesez, udaletxeko ganbaran egin zuten eta plastika tailerra frontoian. Bazkaria plazan egin zuten.

Arratsaldean ere primeran pasatzeko aukera izan zuten. Frontoia mahaiz betea zegoen, Lehen Hezkuntzakoentzako neska-mutikoen-tzako jokuekin. Bi gelaxto ere bazeuden, Haur Hezkuntzako haurrendako jokuekin. Gurasoei ere luzatu zieten hurrekin jostatzeko eta arratsaldeko goxo bat

pasatzeko gonbita eta askok hartu zuten parte. Hurrekin jolastu bidenabar, Burlatako Regalos Gil dendako arduradunak ekarritako material interesgarria ezagutzeko aukera izan zuten, bera izan zen arratsaldeko jolasetarako material guztia ekarri zuena. Arratsaldean kalejira egin zuten plazaraino Maddi trikitalaria eta Aitor tronpetalariaren eskutik.

Egun polita pasatu zuten bertaratutakoek. Antolatzaileak zoriondu beharrean gaude, izugarrizko lana egin baitute.

Aste Santua

Nahiz eta Aste Santuko oporrak ortzegun hasi, aurreko asteburutik jada mugimendua sumatzen zen landa etxeetan. Ortzegunetik igandera bitarte, II Pintxo astea ospatu zen Iturburu, Bustitz eta Ariztigain Kanpinaren eskutik. Bina pintxo egin zituzten: Iturburrun, barazki risottoa foierekin eta marisko brikaxibi saltsarekin, Bustitzen, ogitarteko Iberiko kurruskaria pikillo-aparrarekin eta arraultze gratinatua baratze-ri-tostan; eta Ariztigain kanpinan otarrainxkaren brotxeta txipiroi saltsarekin eta odolki eta aza pudina. Pintxoak dastatutakoan gustukoena



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Frontoian paratutako mahaiz jokoekin ederki pasatu zuten ikasleek.




bozkatzeko aukera ematen zuten.

Ortziral Santuko elizkizunaren ondotik prozesioa egin zen, azken urteetan ez bezala eguraldiak lagundu zuelako.

Igande arratsaldean Trébedes taldearen emanaldia izan zen kanpinan eta ondoren haur jokoak eta txokolatada.

Astelehen eguerdian pintxo irabazlea zein zen zenbatu eta herriko produktuez betetako saskiaren zozketa egin zuten. Pintxo irabazlea Iturburuko risottoa izan zen, ondoren Bustitzeko arraultza eta azkenik Kanpinako pudina. Saria, beriz, Rakel Urtxegi herritarrarentzat izan zen. Zorionak ostatuei antolatutako pintxo astearengatik. Iaz baino pintxo gehiago saldu eta herriko giroa bikaina izan da. Ederrak izan dira pintxoak!



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA JAIONE OTXANDORENA

Aste Santuko irudiak: prozesioa, pintxo lehiaketako eta saskiaren irabazleak eta haur jokoak.

Ba al zenekien

Ulibeltzak elkartek urteko batzarra eginen duela maiatzaren 10ean, 18:00etan. Bi urteren ondotik junta aldatuko da eta orain arte aritu diren 8 kidek utziko dute, 8 berri sartzeko.





Bortzirietako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

Jakinarazten da: 2014ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinatzen den bezalaxe:

2014ko TASAK

ERABILTZAILAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	77,50 €	46,32 €
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	66,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	54,30 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak.	78,70 €	2012 eta 2013ko tasa berak
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	154,60 €	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	235,70 €	
1. Ostataua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	157,10 €	
2. Ostataua. 30m ² baino azalera handiagoko ostatauak eta janari denda daukaten ostatauak	314,50 €	
3. Ostataua. Pub eta diskotekak	392,80 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	392,80 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	707,40 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	78,70 €	2012 eta 2013ko tasa berak
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	67,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	55,10 €	
2. Landetxea: 6 toki edo gehiagokoa	157,60 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	134,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	110,30 €	
1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoa	549,80 €	
2. Hostala. 10 logela baino gehiagokoa	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	392,30 €	
Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak	1.178,50 €	
Lantegiak, 4 langile bitarte. Jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	78,70 €	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	157,10 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	392,80 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	785,60 €	
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.178,50 €	
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.233,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.291,50 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	763,50 €	

Ordaintzeko era

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

- 2014ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2014ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarquarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2014ko apirilaren 1ean

Presidentea,

Miguel Maria Irigoien Sanzberro

MALERREKA

GIZARTEA → APIRILAREN 5EAN EGIN ZEN AURKEZPENA DONEZTEBEKO ZINEMAN

Gure Esku Dago dinamika indartsu eta gogotsu abiatu da

Maiatzean ere hainbat ekitaldi iragarri dituzte

TTIPI-TTAPA

150 lagun elkartu ziren apirilaren 5ean Doneztebeko zine aretoan Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpen labor eta polita ikusteko. Ekitaldi xumea baina atsegina burutu zuten: bertako dantzariak, bideo ofiziala, bailaran grabatutako bideo ikusgarria eta anitza, familia argazkia, berendu goxoa... Egun horretan saldu ziren Malerrekako lehendabiziko 50 metroak ere.

Aurkezpena abiapuntu polita izan da ekimen hau bailara osora zabaltzeko. Ekainaren 8an Baztan, Bortzirriak eta Malerrekako 400 lagun baino gehiago elkartzeko helburua eta erronka ezarri da. Egokitu zaigun 108. kilometroa (Itzan) bailarako kolorez, solasez, kantez... jantzi nahi da. Horretarako lan batzordeak bu-



UTZITAKO ARGAZKIA

150 lagun bildu ziren Doneztebeko zineman egindako aurkezpenean.

ru belarri dihardu egun hori behar den bezala antolatzen.

MAIATZERAKO AGENDA

Maiatzerako agenda zabala antolatu da metroak eta materiala saltzeko. Datak hauek dira: maiatzaren 11n Iturenko azokan; maiatzaren 17 eta 18an Sunbilla eta Donamariako kultur astetan; maiatzaren 24an Gure Esku Dago eguna Donezteben. Buztatzeko, maiatzaren 31n Malerrekako egunean (Donezteben), giza ka-

te txiki bat antolatuko da. Egun horietaz gain, metroak bertze bi tokitan ere erosten ahal dira: Ostiz liburudendan eta Elgorriagako ostatuan. Aipatu behar da metroa erosteko 5 euro ordaindu behar direla, (16 urte baino gutxiagokoek ez dute ordaintzen). Giza katera bertaraten direnei origarri bat banatuko zaie ekimenean parte hartu dutela egiaztatzeko. Batzordea autobusen antolakuntzaz ere ardurtzen ari da.

Errekako infantilak azpitzapeldun

Liga bikaina egin ondok, lauko finalerako sailkatu eta azpitzapeldun izan dira Errekako mutiko infantilak. Bardenas eta Ardoi taldeei erraz irabazi zieten, baina Anaitasuna txapeldunaren kontra galdu zuten. Orain kopa lehia- ketan hasiak dira.

Seniorrek aldiz, ez zuten lauko finalerako sailkatzea lortu eta seigarren izan ziren txapeldunen fasean.

MAIATZAREN 1A

Eskualdeko manifestazioa Donezteben egingen du LABek

TTIPI-TTAPA

Langileok erabaki Euskal Herriak erabaki dezan goiburupean, maiatzaren 1erako Baztan-Bidasoaldeko manifestazioa deitu du LAB sindikatuak Donezteben. 12:00etan abiatuko da Avia gasolindegitik. LABek idatzi baten bidez jakinarazi duenez, «bestelako Euskal Herri bat beharrezkoa dela, bestelako eredu ekonomiko eta sozial bat beharrezkoa dela eta, batez ere, inposaketen gainera, eredu hori eraikitzea guri dagokigula, aldarrikatu izan dugu. Orain, erabaki hori errespetaraztea dagokigu eta horretara goaz!». Bertze mobilizazioak ere egin ditu LABek aste honetan eskualdean, Ernai gazte erakundearekin batera. Ortziralean Beran solasaldia izan zuten eta astelehenean, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean kontzentrazioa egin zen Lesakan.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

AMEZTIA

HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA JATETXEA

ASTEBURUKO MENUA

18€

HAURRENTZAKO MENUA

10€

Eta gainera...

- ENTSALADAK
- SASOIKO BARAZKIAK
- PASTA FRESKOA
- PLATER KONBINATUAK

Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...

T. 948 450 028
DONEZTEBE
www.ameztia.com

KULTURA → LIBURUA, CD-A ETA DVD-A

'Xaldun Kortin', euskaraz jolastu eta ikasteko materiala karrikaratu dute

Gurasoentzako ikastaro praktikoak eskainiko dira

TTIPI-TTAPA

Labrit Multimediaiak eta Euskokultur Fundazioak Nafarroako ondaretik bildutako kantuak eta kontuak biltzen dituen liburua, DVD-a eta diskoa kaleratu berri dute bilduma bakar batean, Xaldun Kortin, jolastu gurekin izenburupean. Lanaren helburua, guraso euskaldunei eta baita euskaldunak ez direnei ere euren haurrekin euskaraz jolastu eta ikasteko aukera eskaintzea da.

Euskokultur Fundazioko Maite Lakarrek eta

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Patri Arburuak apirilaren 11n Iruñean egindako aurkezpen ekitaldian azaldu bezala, haurrekin lotutako ahozko ondarearen bilketan sakondu nahi dutenei zuzenduta dago liburua.

Proiektu parte hartzailea izan da. Hala, Nafarroako herri eskolen laguntza jaso zuten Labrit Multimediaiako kideek. Tartean, Bortzirietako Bertso Eskola, Elizondoko Abesbatza ttikia eta Leitzaldeko Aralar Musika Eskolako ikasleek parte hartu dute CD eta DVDaren grabaketan, Porrotx pailazoarekin batera.

Euskokultur Fundazioko Maite Lakarrek eduki guztien azterke-

ta eta sailkapena bideratu du, eta orain gozatu ahalko duzuen hautaketa ere gauzatu du.

Horrez gain, Nafarroako euskara teknikarien sareak irizpide eta aholkuekin lagundu du.

Materiala salgai egonen da eskualdeko liburudendetan eta www.xaldunkortin.com webgunearen bidez. Eskualdeko Euskara zerbitzuek, bere aldetik, aurtentzako diren haurren familiei oparituko die.

IKASTARO PRAKTIKOAK

Gurasoentzako Xaldun Kortin ikastaro praktiko eta laburrak ere (2 ordukoak) eskainiko dira. Lehenbizikoak Lesakan eta Beran egingen dira, maiatzaren 22an eta 27an.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Elizondoko Abesbatza ttikia, Bortzirietako bertso eskola eta Aralar Musika Eskolakoak, DVDaren grabaketan Porrotxekin.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2014 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

KULTURA → BURLATAN IZANEN DA EMANALDIA

Kantu jaialdiko azken saioan ariko dira Urretxindor taldekoak



Pertsonaia
Ander ERASUN

Urrezko Aizkolari Sarian lanean burubelarri

Beriki hasi den Urrezko Aizkolariak txapelketan ari da parte hartzen bakarkako modalitatean. Apirilaren 28an Armeniaren jokatu zuen Erasunek kanporaketa, Felix Etxeberria eta apirilaren 26an jokatzekoan kanporaketa bigarren geratu zenaren kontra., Donato Larretxea, Larrañaga edo Juanjo Lopezen kontra alegia (leerro hauek idazterakoan ez zen jokatu).

Maiatzaren 4an, igande eguerdiko 12:30an Berako Eztegarra pilotalekuan du hurrengo hitzordua. Gazte mailako txapelketako saioan Oihan Larretxea, Ruben Saralegi eta apirilaren 27an Bilbon jokatutako saioko hiru lehen sailkatuak izanen ditu arerio.

Beran bezala, 'Aberriaren mugak' kanta abestuko dute

Arkaitz MINDEGIA

Aurreko aleetan aipatu genuen Pulunpa herriko eskolako haur eta gaztetxoek Nafarroako haur eta gaztetxoek kantari jaialdian parte hartu zutela Beran. Ederki egin zuten hiru taldeek, Joaldun, Mariatxi eta Urretxindorrek, beraien gaitasun eta abileziak erakutsiz. Kanporaketa guztiak egin ondotik, Burlatan jokatu den azkeneko jaialdian parte hartuko dute Urretxindor taldekoak. Beran bezala *Aberriaren mugak* kanta abestuko dute. Zorionak eta ongi pasa!

Udaletzeko balkoian banderen inposaketa

Duela hilabete batzuk erabaki zuen Udalak banderak jartzea



UTZITAKO ARGAZKIA

Urretxindor taldekoak Beran egindako saioan. Berriz ere Burlatan kantatzeko aukera dute.

Udaletxean (herrikoa, Nafarrokoa, Espainiakoa eta Europakoa). Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak Nafarroan duen delegaritzak jarritako errekurtsioek behartu diote Udalari bere borondatearen kontrako erabaki hori hartzera.

Udalak, Iturengo herritarrei jakinarazi nahi diete Udaletxean ego-

nen diren sinboloak inposatutakoak direla, «legeek ezartzen dutena betetzera behartzen gaituztelako».

Hemendik aurrera udalak animatu eta gonbidatzen die herritarrei, beraien etxeko fatxadeetan jartzeko «gureak sentitzen ditugun sinboloak gure eta herriaren nortasuna zein den geratu dadin».

Aste Santuak

Pasa berri diren Aste Santuko opor labur hauetan jende aunitz ibili da herrian. Herriko xokoetan jende ugari ikusteko aukera izan dugu, bide gorrian, Mendaurrerako bidean eta herrian barna. Leku aunitzetatik etorri ziren bisitariak: Bizkaia, Gipuzkoa, Valentzia... Seguru bueltatuko direla!

JUAN J. PICABEA

ttipi bartela

%10eko
DESKONTUA
marka batzuetan
ezik

Jar ezazu zure erakundearen osasuna APMren esku!

Nafarroan 15 urteko esperientzia prebentzio-lanetan dugu gure alde!

- Lan-arriskuen prebentzioa
- Osasunaren zaintza
- Prestakuntza
- Errendimenduaren Kontsultoretza



APM
Prebentzioa

Egoitza Nagusia: Iruña,
Monasterio de Allos, 2
948 26 4915
apm@apmprevencion.com

www.apmprevencion.com

GIZARTEA → APIRILAREN 12AN

Enaitzen aldeko kamixetak eta boletoak erruz saldu dituzte

Herrian jaiotza eta ezkontza izan ondotik, maiatzaren 11n lehen jaunartzea egingen dute lau neska-mutikok

Fermin ETXEKOLONEA

Izaskun Zubialderen eskutik, Enaitzen aldeko *Enaitz gara* kamixetak eta hamar saskiren zozketarako txartelak saltzen aritu ziren apirilaren 12an herriko plazan. Harrera ona izan zuen eta haurrek, Bera-ko mutikoaren kasua

ezagutu eta ezagutze-
ra eman zuten, inplikazio handia erakutsiz. Izaskun Zubialdek aipatu digunez, «jendearen erantzuna izugarria izan da. Oso pozik gaude herriak eman duen laguntzarekin. Ez genuen holako emaitza onik espero». Lerro hauen bitartez, herritarrek erakutsi duten solidaritatea eskertu nahi du.

Jaiotza

Elaia Santesteban Amoros herritar berria jaio zen apirilaren 10ean. Zorionak Josu eta Ainara gurasoei, baita Pello Santesteban eta Inmatxo Grajirena atau-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Enaitzen aldeko elkartasun kamixetak erosi zituztenetako batzuk.

txi-amautxiei eta Jexux Santesteban eta Joxepa Loarte birratautxi-birramatxiei.

Lehen jaunartzea

Lehen jaunartzea egingen dute maiatzaren 11n lau neska-mutikok: Jone Indakoetxea, Aitor Agesta, Ane Mendiburu eta Mikel Mendiburu. Anai-arreba hauek Uharten bizi dira, baina halere Aitor lehengusarekin batera ospa-

tuko dute egun berezi hau.

Malerrekako Egunerako mus txapelketa

Maiatzaren 16an jokatuko da Malerrekako Egunerako mus txapelketaren herriko kanporaketa. Errandonea ostatuan jokatuko da gaez. Bikote irabazlea izanen da Donezteben maiatzaren 31n ospa-

tuko den Malerrekako Egunerako herriko ordezkaria. Parte hartzen duten bikote kopurua araberak, azpitxapeldunek ere izan dezakete aukeraren bat.

Ezkontza

Ainhoa Mindegia Santesteban herritarra eta Urrozko Raul Kastro aizkolaria ezkondu dira apirilaren 26an. Zorionak familia guziari eta urte askotarako!

MUSEOKO ZORU BAT ZURE ETXERAKO

AUKERA

Ez galdu barneko eta kanpoko altzarietarako goi-kalitateko zoru eta tauletarako materialik onena eskuratzeko aukera, eta prezio errepikaezinetan.

MAIATZAK 9 / ostirala / 9etatik 18etara

COMPOSITES GUREA

Alkaiaga ind. pol., Baldrun kalea z/g

31780 BERA

Tel. 948 625 045

Parklex[®]
www.parklex.com

Txartelarekin ordain daiteke
Instalatazaileak eta garraioa
eskainiko dira

EZKURRA

GIZARTEA → 49 HEKTAREA ERRE DIRA SUTEAN

Aste santu gazi-gochoak izan dira aurtengoak

Bisitari kopuruak gora egin arren, sute haundi batek ilundu ditu berri onak

Fernando ETXEBERRIA

Bisitari kopuruari begiratuz gero, pasa berri den oporraldia bikaina izan dela esan genezake, aurreikuspen guztiak gainditu baitira. Mantxonea nekazal etxea eta Tito eta Barranka ostatuak beteak egon dira Ostegun Santutik astelehenera arte. Gainera, asko izan omen dira ostatu eta nekazal etxea bete ondok ere logela eske deitzen zutenak. Bisitari gehienak Katalunia eta Holandatik etorri dira eta tartean txinatar batzuk ere izan dira.

Baina guztia ez zen ederra izan. Apirilaren 18an, eguerdi aldera piztutako sute handi batek ilundu zituelako berri onak. Hiru gune desberdinetan hasi zen sua

eta denera 49 hektarea erre ziren. Oronoz-Mugairi eta Cordovillako suhiltzaileak bertaratu ziren sutea itzaltzeko asmotan baina zailtasun handiak tarteko, toki batzuetara iristea ezinezkoa baitzen, hamar orduz luzatu ziren sua itzaltzeko lanak. Helikopteroak, urezko-motxilak... erabili behar izan zituzten.

Duela bi urte Nafarroako Ingurugiro Saileko kideak eta Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak izan ziren herrian larre erreketak nola egin behar diren azaltzen. Aurtentzen, herritar aunitzek egin dituzte larre erreketak orduan entzundako aholkuak segiz eta suhiltzaileen begiradapean. Ez zen inongo arazorik izan orduan. Ez dakigu bakarren batzuk behar ez zen moduan eta tokian sua kontrolik gabe egin eta emaitza sute handia izan ote den. Jakina da ordea, arrisku handia sortu eta suhiltzaileentzako hamar orduko *via crucisa* eragin zuela suak.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Irudian suteak utzitako ondorioak.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Txirrindulariek herria zeharkatu zuten, ziztu bizian

Euskal Herriko Itzuliaren bigarren etaparen herria zeharkatu zuten, eguerdiko ordubiak inguruan. Gipuzkoa aldetik etorri ziren Leitzan barrena txirrindulariak. Sekulako abiadan pasa ziren eta ez zen modurik izan inor ezagutzeko ezta Mikel Nieve leitzarria ere.

 **ttipi-ttapa**

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak.

inprimitzen ditugu

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 10EAN DONEZTEBEN

Arkupeak elkartekoak sasoi betean

Parte hartze handia izan zen Gimnasia Egunean

Fernando ETXEBERRIA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, aurtengo Gimnasia Eguna ospatu dute Arkupeak Elkartekoek. Apirilaren 10ean, Doneztebeko polikiroldegian elkartuta, sasoi betean daudela erakutsi zuten bertze behin ere.

Besta eguerdiko 12:00etan hasi zen, Arkupeakeko gimnasten emanaldiarekin. 30 laguneko taldeak, urte osoan zehar Patxi Txokarro irakasleak erakutsi dizkien ariketa eta mugimenduak egin zituzten. Herriz herri ari-

tu da Patxi klaseak ematen eta guztiak bilduta egindako lana erakutsi dute. Gero kalejiran, bertze elkartekideekin batera Santa Mariara joan ziren guztiak menu bikaina dastatzera. Bazkalondoa Jose Angel akordeolariak girotu zuen eta guztiak primeran pasa zuten.

Arkupeakeko Zuzendaritza Batzordeak besta hau egiten segi nahiko lukeela adierazi du dirulaguntzak txikiak izan arren. Aurtengoa Donezteben egin dute eta datorren urtean lekuz aldatzea posible dela gaineratu dute.

Datozen ekitaldiak

Gimnasia Egunean ez zituzten indar guztiak bukatu Arkupeak Elkartekoek eta datozen



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goian, gimnasia egunean parte hartu zuten elkartekideak. Beheitian, ariketak egiten.

hilabeteetarako antolatuta diren ekitaldi eta irteeretarako askok eman dute izena. Ordiziara egitekoa den irteerara 182 pertsona joan dira eta Lourdesera joateko asmoa ere badute.

Maiatzaren 15ean berriz, besta berezia antolatu dute. Erramun Martikorenak emanaldia eskainiko du Oronoz-Mugairiko Urgain jatetxean eta 202 elkar-

tekide bertan izanen dira ahoa eta belarriak goxatu asmoz. Bazkariaren aurretik, ibilaldi egingen da Bertizen barna. Bertan gure elkartekideek egindako kuadroak, egurrean egindako eskulanak, burniak eginak... ikusteko aukera izanen da.

Datozen hilabeteetako ekitaldi eta bidaien inguruko informazioa maiatz bukaeran argitaratuko den buletine-

an jasoko dute elkartekideek. Aurreikusita dauden bidaien artean, Argentinara eta Europan barna egingen dutena azpimarratu dituzte.

Horretaz gain, aita-txi eta amatxien besta ere ospatuko dute, aurtengo uztailearen 24an. Oraingoan uztailearen 26an egin izan dute, baina aurten larunbata denez, Gorraizko Jaurerrian ez dago lekurik, ezkontza bazkariak dituztelako.

SALDIAS

KULTURA → MAIATZAREN 16AN IZANEN DA EMANALDIA

‘Joxean's Hil eben’ filma eskainiko dute Otxontan

Zuzendarietako bat etorriko da proiektatzera


Markel LIZASOAIN

Beñat Iturriozek eta Xabier Padinek sekulako pelikula egingo dute, eta Saldiseran ekarriko dute beren lana: Joxe-

an's *Hil eben*. Hura ikusi nahi duena ager dabil Otxontara maiatzaren 16an, 21:00etan. Tenorez hasten bada, 22:30erako edo lehentxeago ere akitua behar luke. Sarrera libre da. Laburbilduz, irri egiteko pelikula bat da, baina beldurrezko

eszenak ere baditu.

Pelikula horren aurretik, beste bat egin zuten, laburragoa: *Ataun Of The Death*; orduan, *Joxean's hil eben* bigarren parte da. Seguru asko, biak emanen dituzte; batek 45 minutu irauten du, eta besteak 22.



DONAMARIA

GIZARTEA → ELKARTE BERRIA

Ibargoiarako Naparrak kultur elkartea jaio da

Donamariako historia aztertzeaz gain, Nabarraren errealitatea ezagutzera emateko asmoa dute

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Donamariako historiaz gain, Nabarraren errealitatea ezagutzera emateko asmoa dute. «Ez Nafarroa Garaia bakarrik, Nafarroa osoa, bere lurralde guztiekin» hartzen dute aintzat, «indarrez Nabarratik bereizi zituztenak»



ARGAZKIA: IZASKUN G.T.

Ibargoiarako Naparrak Kultur Elkartearen aurkezpena.

ere kontuan hartuz, azaldu dute. «Hortarako ukatua eta ezkutatua izan zaigun gure historia zabaltzeko» asmoa dute. Horretaz gain,

oraindik ere «konkistatua dagoen Nabarrako gizarteko ondarearen, hizkuntzaren eta lurraldetasunaren berreskurapenean» lan egingen

dute, jarduera ludiko kulturalen bidez, eta Nabarrako sinbologia duten diseinu eta sorkuntzen zabalpenarekin (ibarnapar@gmail.com).

KULTURA → MAIATZAREN 14TIK 18RA

Donamaria-Gazteluko Kulturaldia ekitaldiz gainezka dator

‘Ondoko hilobiko tipoa’ antzezlana ikusgai izanen da hilaren 17an

Izaskun G. T.

Donamaria-Gazteluko Kultur Aldia maiatzaren 14tik 18ra ospatuko da, egitarau zabalarekin.

MAIATZAK 14, ASTEAZKENA

• 17:00etan sukaldaritza tailerra haurrendako erabilera anitzeko gelan.

MAIATZAK 15, ORTZEGUNA

• 17:00etan haurrendako tailerrak (panpinen



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aitziber Garmendia eta Iker Galartza, antzezlanean.

jantziak, bestetarako apaingarriak, birziklapenarekin jolasean, jaurtigailuak...).

MAIATZAK 16, ORTZIRALA

• 19:00etan talo tailerra eta ondotik berendua izanen da nahi duten guztientzat frontoian.

Gure esku dago informazio mahaia ere paratuko da.

• 22:00etan mus txapelketa Herriko Ostatuan.

MAIATZAK 17, LARUNBATA

• 12:00etan Mendaur trikitixa eskolako hau-

rreren emanaldia plazan.

• 12:30ean Nabarra osoaren ikurrari goratze parkean.

• 18:00etan Txalo Producciones taldearen «Ondoko hilobiko tipoa» antzezlana Jaurregian, Iker Galartza eta Aitziber Garmendia aktore ezagunekin, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean.

• 21:30ean sagardotegi-afaria Herriko Ostatuan.

MAIATZAK 18, IGANDEA

• 11:00etatik 13:30era argazki zaharren erakusketa erabilera anitzeko gelan.

• 19:00etan *Gazta zati bat* dokumentala eskainiko da erabilera anitzeko gelan.

MAIATZAREN 4AN

Garmendiko buelta egingen dute Solaslagunek

TTIPI-TTAPA

Solaslagunak ekimenaren baitan udaberriko zenbait ekitaldi antolatu dituzte. Maiatzaren 4an, Garmendiko mendi buelta egingen dute. Donamariako plazatik 10:00etan abiatu eta 1.029 metrora dagoen gailurrera joanen dira. Handik Txaruta aldera joko dute eta Garmendi eta Larratumendi tarte horretan hamaiketako ttipia izanen dute. 4 ordu inguruko ibilbidea izanen da, Kleofe Goñi solaslaguna gidari dutela. 14:00 aldera bueltatuko dira Donamariako plazara eta bazkari autogestionatua izanen dute.

BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → MAIATZAREN 10EAN

Labaiengo Elkartearen Eguna herri kirolekin ospatuko dute

Herri kirol saio bereziaz gain, bazkaria eta mus txapelketa izanen dituzte

Arantxa ITURRALDE

Labaiengo elkartearen eguna ospatuko dute maiatzaren 10ean. Eguerdian herri kirolen ekitaldi berezia egingen dute. Alde batetik, Ernesto Ezpeleta *Bihurrik* bi metroko ingurua duen enborra moztuko du esku bakarrarekin. Ondoren, hiru aizkolari ariko dira lehian, 45 ontzako lau enbor moztzen buruz buru: Pizargineko Joxe Mari, Koldo García Iruñeko morroskoa eta 15 urte dituen Hodei Ezpeleta.

Akitzeko, buruz buru ariko dira Xabier Mindegia, Tito, Pello, Miguel Anjel, Mieltxo Mindegia eta Jazinto. Bazkaldun ondoren, mus txapelketa jokatuko da.

Ortziral Santuan ere herri kirolak

Ortziral Santuan arratsaldeko 7etan, herri kirolen erakustaldia izan zen Labaiengo plazan.

Batetik, hiru aizkolari bikotek parte hartu zuten: Migeltxo eta Xabier Mindegia lehengusu-

ek, Jazinto eta Jesussek eta Pello eta Miguel Angelek.

Hiru arpanlari bikote zituzten aurrez aurre: Barberena anaiak, Pikabea anaiak eta Gipuzkoatik heldutako Aitziber Lizarralde (Aia) eta Ainhoa Otaño (Ibarra).

Aizkolariak bi enborreko lana egiten zuten bitartean, arpanlariak 10 korteko lana egin behar zuten. Azkenean, arpanlariak nagusitu ziren.

Eguraldi bikaina zenez, jende dexente bertaratu zen herriko plazara eta gozatu ederra hartu zuen kirol probarekin.

Egunari behar bezalako amaiera emateko, Ittur-ondo elkartearen, amuarraniak afaldu zituzten giro ederrean.

Gaztain ximelak Ortzegun Santuan

Aste Santuko oporraldian, Beintza Labaindar haurrendako Ortzegun Santuko eguna berezia izaten da. Ohitura den bezala, arratsaldean, etxez etxe ibili ziren goxokiak biltzen eta abesti hau kantatuaz:

"Gaztain ximel ximelak andriak elizera, gizonak tabenera, haurrek haurretera, apeza txokoltia hartzera!".



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Herri kirol saioaren ondotik, amorrainak izan zituzten afaltzeko Ortziral Santu egunean.



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Goian, haurrak Goietzeko atarian Karlosek noiz goxokiak botako esperoan eta behean, haur kuadrila gaztain ximelak akituta.

LEITZA

KIROLA → PESTA TRENBIDEAN ETA HERRIAN

Natur Bideen Eguna ospatuko da Plazaolan maiatzaren 4an



Ostatu eta museoek ere eskaintza bereziak prestatu dituzte

JM BARRIOLA

Maiatzaren 4an izanen da aurtengo Natur Bideen Eguna eta Plazaolako natur bidearen inguruan egun osoko pesta antolatua da. Goizean goizetik naturbidetik barna ibilaldiak egiteko proposamena luzatu dute: Leitza, Lekunberri, Latasa... eta geltokia dagoen eremua bisitatu. 11:00etatik aurrera ibilaldietan parte hartu dutenentzat pintxoak izanen dira eta Aralar musika eskolako fanfarreek eta Leitza dantzari txikiak emanaldiak eskainiko dituzte. Artisauak ere beren postuak jarriko dituzte eta geltokian erakusketa bat ere jarriko da. Horretaz gain, Leitza eta Lekunberri artean bidaia eginez ibiliko da tren turistikoa. Herriko ostalduak ere bat egin dute pestarekin eta pintxopotea edo menu bere-

ziak dastatzeko aukera emanen dute. Arratsaldean ere izanen da zer ikusia. 16:00etik aurrera bisita gidatuak egiteko aukera izanen da Arro baserrian eta Peru-Harrin. 19:00tik aurrera Ortzadar Taldearekin dantzaldia izanen da.

Aurtengoa ospakizun hirukoitza izanen dela esan liteke, Plazaolako trenbidea inauguratu zutela 100 urte bete direlako eta Plazaolako Partzuergo Turistikoa osatu zela 20 urte. Hori dela eta urte guztian zehar ekimenak ari dira egiten ibilbideak zeharkatzen dituen herrietan. Gainera, partzuergoak web gune berria ere jarri du martxan gure inguruko informazio turistikoa zabaltzeko asmoz, www.plazaola.org helbidean topatuko duzue guztia.

Maiatzaren 10ean hitzordu bikoitza

Maiatzeko bigarren larunbatean, Leitzaldeko haur, guraso eta eskolen XV. topaketak ospatuko dira herrian. Leitza,

Goizueta, Areso eta Aranoako ume eta gurasoak bilduko dira pesta egun bikainaz gozatzeko asmotan. Goizeko 11:00etan kalejira batekin hasiko dute eguna eta 11:30tan konpostari buruzko hitzaldia izanen da. 12:00etan tailerrak, 14:00etan bazkaria eta 16:30etik aurrera jokuak prestatu dituzte. Jolasean galdutako indarrak berreskuratuzko 18:00etan merendu berezia egingen dute. Eskolen topaketak ez dira maiatzaren 10eko hitzordu bakarra izanen. Mendi aldean mankomunitateak kon-



ARGAZKIA: PLAZAOLA TURISMO PARTZUERGOA

Goian Plazaolako trenaren aspaldiko argazkia eta behean, maiatzaren 4an trenbidean barna ibiliko den tren turistikoa.

posta jaia antolatu baitu Arekozubi ondoan dagoen auzo-konpostagunean. Konposta aterako da eta familietan banatuko da, ondo-

ren kanpaina bat abian jarriko da interesatutako familia gahiago apuntatu daitezke auzo-konpostaguneak zabaltzea baita helburua.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

DBH 4. mailako ikasleak mendiak garbitzen aritu dira

Amazabal Institutuko ikasleek, azken zazpi urtetako ohiturari eutsiz, lan-saioa egin dute gure inguruak garbitu eta zaborrak jasotzeko. Ingurugiroaren aldeko keinua egiten dute ikasbidaira joateko dirulaguntzaren truke. Aurten ere fin aritu dira lanean eta talde txikitik banatuta zabor pilak erretiratu dituzte Leitza-larretik, Plazaolako ibilbidetik eta beste hainbat txokotatik. Urtetan pilatutako 15 zaku botila eta plastikoak, latak, ontziak eta bestelako hondakinak jaso dituzte.

Ba al zenekien

Jubilatuak elkartek antolatzen duen Jubilatuen eguna maiatzaren 4an ospatuko dela. Bazkari bikaina dastatu eta elkarteko kideei omenaldiak ere egingen dizkiete.

MENDI IRTEERA → APIRILAREN 12AN

Gure esku dago ekimenaren aldeko egun arrakastatsua

Antolatzaileak gustura daude jendeak emandako erantzunarekin

Juana Mari SAIZAR

Apirilaren 12an Gure Esku Dago ekimenaren aldeko eguna ospatu zen herrian, eta aurreko ale batean aurreratu genizuen bezalaxe, egitarau oparoa prestatua zegoen. Mendi bueltan lagun talde ederra elkartu zen eta goizeko lehenengo orduetan zeruan lainoren batzuk ageri baziren ere, azkenean ongi eutsizion

euririk egin gabe. Mendi bueltaren ondoren plazan musika, pintxoak eta salda hartuz gustora egon zen jendea frontenis txapelketa azkarreko partidak jokatzen ziren bitartean. Antolatzaileak oso pozik agertu dira herritarren parte hartzearekin eta jasotako erantzun ona ikusita gauza gehiago antolatzen jarraituko dutela aipatu du.

Akatsak zuzenduz

Aurreko alean idatzitako genuen PakeToki elkarreko zuzendari berria emakumea zela eta gero jakin dugu Larrea



elkarteko zuzendaria ere emakumea dela, Itxaro Gereño hain zuzen ere. Bakarra azpimarratu genuen aurrekoan eta horregatik norbait minduta sentitu baldin bada barkamena eskatu nahi nioke. Batzuetan gertatzen da berriak banaka jakiten ditugula, beste batzuetan nahiko presaka ibiltzen gara eta gero zuzendu edo hobeki esanda osatu behar izaten ditugu.

Eskualdeko eskolen topaketa Leitzan

Iaz Areson ospatu genituen Eskualdeko



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Goian herri argazkia eta behean mendi itzulua egindakoak.

haur, guraso eta eskolen topaketak eta aurreten, maiatzaren 10an Leitzan ospatuko dira. Urtero egiten den peseta da eta indar handia

hartu du. Seguru herriko haur eta guraso ugari joanen direla bertara, ea eguraldia lagun izan eta egun ederra pasatzen duten!



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 2AN ETA 3AN

Txino auzoko festak asteburu honetan

Legarreta eta Sotoren bertso saioarekin hasiko dira ostiralean

TTIPI-TTAPA

Ohiturari segituz, maiatzeko lehenbiziko asteburuan zubiz bestaldera dagoen Txino auzoko festak izango ditugu. Ostiralean Julio Soto eta Xabier Legarreta bertsolariek eman-go diete hasiera festei 20:00etan, Zubiondo tabernako bertso saioarekin. Gauean 22:30ean Mus txapelketa jokatu-ko da taberna berean. Bikote txapeldunak arkumea eramango du etxera eta azpitxapeldunak txuleta eta txakolina.

Larunbatean, maiatzak 3, 11:30ean Umore Ona dantza taldearen emanaldia izango da. 12:00etan festei hasiera ofiziala emateko txupinazoa botako da trikitilarekin alaituta eta ondoren dragoia aterako da giroa alaitzera.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Beti bezain partehartzaileak izanen dira Txinoko festak.

Jarraian Txinoko auzotarrak eta herritarrak aurrez aurre jarriko dituen Oka jolas erraldoia jokatu-ko da. 14:30ean herri bazkaria izango da Goiko Frontoian. Bazkaltzera joan nahi dutenek txartelak salgai dituzte Amaia kafetegian (langileek 18 euro, ikasle eta langabetuek 15 euro).

Arratsaldeko 6etan bakarriketa egingo du lkatzolako Edurnek eta ondoren trikitilariak arduratuko dira giroa alaitzeaz. Gaueko 12etan kontzertuak izango dira Bajeran Kalera eta El adhesivo taldeekin.

Euskal Herritartasunaren aldeko mozioa

Hiru puntuko ez ohiko batzarra egin zen apirilaren 11n Herriko Etxean. Alde batetik, Udalbiltzak Aberri Egunari begira Euskal Herriko Udal desberdinetan aurkeztutako *Euskal Herritarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu* mozioa onartu zen. Mozio honekin, Udalak erabaki du Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta bul-tzatzeko deia luzatzea; kaleetan eta eraikinetan euskal ikurrak jartzeko



ARGAZKIA: EGOITZ ZUBIRI

Goizuetarrak txakolindegian

Apirilaren 12an goizuetar talde bat txakolindegira joan zen Umore Ona elkartearen eskutik. Azken urteetan bezala Getariko Ameztoi txakolindegira joan ziren, eta argazkian ikus daitekenez ez zuten batere gaizki pasa!

gonbidapena luzatzea; oroimen historikoa berreskuratzea eta Herritartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatzea; Etxarriko herri kontsulta babestea; eta Gure Esku Dago herri dinamikarekin bat egitea.

Bestetik, Zangozako Manifestua onartu zen, Esako urtegia haunditzearen aurka. Eta azkenik, bake epaile berria ere izendatu zuten. Josune Narbarte Etxegia izanen da da-

tozen lau urteotan kar-gu horretan, Juana San Miguelen ordez.

Iruñeko Abesbatzaren kontzertua

Iruña Abesbatzak kontzertua eskainiko du maiatzaren 10ean, larunbat eguerdiko 12etan elizan. Herriko Umore-Ona abesbatzak ere parte hartuko du. Ondoren kantujira eta bazkaria izanen dituzte Umore-Ona elkartearen.



ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7 - 1
31770 LESAKA
T. 948 635 458
www.ttipi.net
info@ttipi.net



ttipi txartela harpidetza baino merkeagoa da

ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari



* produktuek agortu arte

eta

ttipi-ttapa aldirikara doan + 39 dendetan
deskontuak + hamabostero
zortze ta izugarriak
dentu eta informazioa eskatu

GIZARTEA → CEDERNA-GARALURREN ESKUTIK

Norbere zaletasuna mikronegozio bihurtzeko ikastaroa

Langabetuei
zuzendua
Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Langabezian dauden pertsonentzat *Nire zaletasuna mikronegozio bihurtu* izeneko ikastaroa antolatu du Cederna-Garalurrek, Baztango Udalaren laguntzaz. Elizondoko Arizkunenea

Kultur Etxean egingen da maiatzaren 6, 13, 20 eta 27an eta ekainaren 3an, 09:30etik 12:30era. Hiruna orduko borts saio izanen dira, 15 ordu denera.

Edukiei dagokionez, *Sormena, Aitzindaritza eta ekintzailetarako trebetasunak* eta *Nire zaletasuna mikronegozio bihurtu. Zaletasunak eta hobbyak identifikatu. Ho-*



UTZITAKO ARGAZKIA

Berroeta inguruko txokoen garbiketa egin dute auzolanean

Berroetako 22 lagun elkartu ziren apirilaren 5ean herriko inguruen garbiketari auzolanean ekiteko, bertze lanen artean. Lanaldi gogorren ondotik 1.500 kilo inguru hondakin atera eta zabortegira eramatea lortu zuten. Bildutakoan artean, plastikoak, txatarra, gurpilak, bateriak, eraikin eta eraespen hondarrak, jostailuak, etab. ikus zitezkeen. Miren Meoki, Baztango Udaleko Hondakin teknikariak zoriondu nahi izan du Berroetako herria, «benetan zoriontzekoa egingdako lana! sentsibilizazio ekintza bikaina! Ia Baztango gainerako herrietako biztanleok ere ikasten dugun eta pixkanaka gure inguruak garbitzen joateaz gain, hainbertze ez zikintzeko ardura hartzen dugun».

rietatik abiatuta negozio-prototipoak sortu landu-

ko dituzte. Informazioa eta izen ematea, 948

567010 edo *sakana.admon@cederna.es*.

Liztor beltzaren kontrako informazio kanpaina egin dute herrietako eskoletan

TTIPI-TTAPA

«Gure inguruan liztor beltzaren presentzia haunditzen zihola eta Nafarroako Gobernuak ez zuela eta ez duela esku hartzen ikusirik, inguruan izan zezakeen eragin negatiboarekin kezkatuta», Baztango Ehiza eta Arrantza Elkarteak eta Udalak liztor beltzaren kontrako hitzarmena sinatu zuten, herrietako eskoletan informazio kanpaina egiteko. Eta halaxe izan da, Ana Altzuri Lasarte elkarteko teknikaria eskolaz eskola ibili da urtariletik martxora liztor beltzaren inguruko xehetasunak ematen.

Eskolaz eskola, liztorra zer den eta inguruan eta guregan izaten ahal duen eragina azaldu die Anak, kontatu digunez, «gizakiontzat izan ditzakeen arriskuak azpimarratuz». Gisa honetara, «liztorraren inguruan sortutako mamu eta izugarritzko izurritearen ideia burutik kentzea lortu nahi genuen, animaliarekiko errespetua mantenduz». Tranpak nola eta noiz egin, eta nola berrikusi behar diren ikasi dute ikasle eta irakasleek. Plastikozko bi ur botilekin egindako tranpak egiten erakutsi die Anak, barrenean zerbeza edo aquariusua sartuta. Tranpak 15 egunetik berrikustea gomendatu die eta barreneko likidoa berritzea. «Erlezainak ez bagara, uda hastean tranpa hauek erretiratzea da egokiena, gure mendiak zaborrez ez betetzeko». Dena den, liztor beltzaren kontrola «utopia» dela dio Anak: «epe laburrean izanen dituen ondorio nagusiak erle eta fruituetan egiten ahal duen kaltea eta ondorioz, gertatuko den galera ekonomikoa dira.



Azpilkuetako eskolako ikasleak Anarekin tranpak nola egin ikasten.

Denborarekin erleak liztorraren kontrako defentsa asmatuko duela erraten duen teorian itxaropena izan behar dugu, bertzeala, epe luzean, erleengan batez ere, izugarritzko kaltea egin dezake animalia honek egun bizi duen egoera kezagarria larriagotuz. Erleak defentsa garatu bitartean, laguntza beharko du».

Baztango herrietako eskoletako neska-mutikoen aldetik, «hagitz erantzun ona» jaso dutela adierazi digu teknikariak eta hortaz, ikastetxeei eta elkartearekin kolaboratu duten baztandarrei, elkarteko bazkide eta gainerakoei, eskerrak eman nahi izan dizkie. Liztor beltzaren kontrako kanpainarekin hemendik aitzinera ere «hobetzen eta gauza berriak ikasten» saiatzeko asmoa dutela argitu digu, «gure ustez, hedatuegia baitago eta ez duelako hedapenarekin gelditzeko asmorik». Hori bai, «animaliari zor zaion errespetua izateko» ere eskatu du.

BAZTAN

GIZARTEA → MAIATZAREN 2AN ELIZONDON

Nekazaritzako Merkatu gardena antolatu dute EHNEk eta Balleko Etxeak

10:00etatik
14:00etara
salmenta
postuak jarriko
dituzte plazan

teko tailerra eskainiko da.

Bertze aldetik, maiatzaren 3an, dantza latinoen kontzertua eskainiko du Elizondoko Banda Recreok Elizondoko plazan 20:00etan.

TTIPI-TTAPA

Elizondoko nekazaritzako merkatu gardena antolatu dute maiatzaren 2an Elizondoko plazan Nafarroako EHNE sindikatuak eta Baztango Udalak, Cerderna Garalurren laguntzarekin. 10:00etatik 14:00etara salmenta postuak jarriko dira: esnekiak, barazkiak, ardi gazta, ezti, ogia, haragia, xaboiak, sagardoa, euskal txerrikiak, arrautzak... 11:00etan Asiako liztorrari buruzko solasaldia eskainiko du Ana Altzurik. 12:30ean xaboi ekologikoak egi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Gure esku dago aurkezpenaren ondotik lip-duba grabatu nahi

Baztanen martxan da Gure esku dago ekimena, eta apirilaren 11n aurkezpena egin zuten Elizondon, Arizkunenea kultur etxean. Leporaino betea zegoen aretoan, dinamikaren aurkezpena egin zuten, bideo batzuekin eta azalpenekin. Baztandar aunitzek parte hartu duten ikusentzunezko bat erakutsi zuten gero. Aurkezpen ekitaldia akitzeko, argazki jendetsu bat atera eta pintxo batzuk eta tragoxkaren bat hartzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Bertzalde, jendearen partehartzea sustatzeko asmoz, heldu den maiatzaren 17an Elizondon Gure Esku Dago Eguna antolatu nahi dute, eta bertze gauzen artean, lip dub bat grabatu nahi dute eta egun horretarako gonbidapena luzatu dute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Baztan Abentura Park probatu dute Beartzungo bizilagunek eta BKZko langileak

Baztan Abentura Park-ek atek zabaldu ditu Aste Sainduan, bi argazki hauetan ageri denez. Bata irekieran egindakoa da, BKZako langileak eta parkea egiten aritu diren langileak dira, bertzean Beartzungo Auzoko jende ausartak agertzen dira: txikiak 3 urte ditu (tirolina txikitik ibili zen) eta bertze guztiak arras ausartak izan ziren 480 metro luze eta 120metroko altuera dituzten tirolinetan ibili baitziren.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 629 659 583
ARIZKUN

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
